

"Louisbourgeko epailearen alabak ginen; Hendaiatik joan zen arrantzale baten oinordekoak"

Maddi Beltza Beristain / 2-3



Nafarroako Gobernuak eman ditu Aralarko guardetxeko lanak eta enpresa obra hastear da / 13

Egoera eskasean dauden etxe hutsak buruhauste handia dira Arakilgo Udalarendako / 13

Disziplina askotatik ikertutako Aralarko santutegiko erretaula liburu batean jaso dute / 6-7

220 txirrindularik eman dute izena igandean Sakanako Bizikleta Egunean parte hartzeko / 16

Imanol Erbiti Ollok Europako Txapelketan parte hartuko du igandean Brenthen / 18-19

Ganibet, Amaiur Goikoetxea eta Ekain Alegre musikarien musika elektronikoa proiektua / 22-23

euskara hurbil,
zu urrun heltzeko

Sakana
Itsasi euskaltegia

EUSKARA IKASTAROAK
Aritasun, Irurtzenen,
Etxarri Aranatzan...

Izena emateko azken eguna:
irailaren 25a

Gartzia Ximenez 46, behea,
ALTSASU
sakana@oek.eus
948 468 258

DIRULAGUNTZAK
Sakanako Mankomunitatea,
Hainbat Udal eta Nafarroako Gobernuak



Maddi Beltza Beristain XVIII. mendeko txistu baten birsorkuntza jotzen. © XABI OTERO-JAUZARREA

"Euskal Herria eta Unama'kiren artean harreman estua dago"

MADDI BELTZA BERISTAIN IKASLEA

Bi hilabetez Kanadako Cape Breton Islandgo Louisbourg leku historikoan egon da, euskal hizkuntza eta kultura zabaltzen

Erkuden Ruiz Barroso ETXARRIA.

Louisbourg Kanadako Eskozia Berriko Cape Breton Islanden dagoen leku historiko bat da. Gotorleku honetan, 1744 urtera atzera egin dute eta garaiko bizitza islatzen dute bertan lan egiten duten 300 bat antzezlek eta langilek. Urtero 150.000 bisitari izaten ditu.

Jauzarrea euskal jakintza aztertu eta zabaltzeko bideak Unama'ki College – CBU Cape Breton Universityrekin eta Parks Canadarekin batera Unama'ki programa martxan jarri zuten duela bost urte, 2018an. Unama'ki Mi'kmaq Nazio indigenaren lurralde historikoa da. Programa honen bitartez, Euskal Herriko ikasle boluntarioak Louisbourgera joaten dira bi hilabetez euskal hizkuntza, musika, dantzak eta abar erakustera, XVIII. mendeko herritarren paperean sartuz. Programaren helburuak, besteak beste, Mi'kmaq Nazio indigena eta Euskal Herrien artean harremana egitea eta euskal kulturaren sustapena egitea da, izan ere, duela hiru mende biztanleriaren %20 euskaldunak ziren eta bigarren nazionalitate jendetsuena zen, frantsesen ondoren.

2023ko udan etxarriar batek parte hartu du Jauzarrearen Unama'ki programan: Maddi Beltza Beristain 17 urteko gaztea, eta bi hilabetez XVIII. mendean Louisbourgera iritsi zen Hendaiako familia bateko alaba izan da; besteak beste, XVIII. mendeko txistu baten birsorkuntzarekin euskal musika tradizionala jo du eta bertako langileak jauziak irakatsi dizkie.

Zer da Jauzarrea?

Jauzarrea Euskal Herriko elkarre bat da. Euskal hizkuntza eta kultura babestu egiten du.

Eta zertan datza Unama'ki programa?

Proiektu hau sortu zen konturatu zirelako bazela harreman oso estua Euskal Herriarekin eta Unama'kiren artean. Unama'ki Mi'kmaq Nazio indigenaren herria da. Euskaldunekin harreman

estua dute. Antza denez, Colon ameriketara iritsi aurretik euskaldunak Ipar Amerikara iritsi ziren; hain zuzen, Ipar Ameriketako kostaldera bisitak 1342an hasi ziren azal salerosketekin. Ondoren, baleak ehizatzen joaten ziren eta, aldi berean, bakailaoa arrantzatzen zuten. Louisbourgen, egon nintzen herrian, gotorleku bat dago eta leku historiko bat da. Parks Canada Kanadako gobernuaren beste erakunde batek kudeatzen du, parke nazionalak eta toki historikoak kudeatzen dituen. Leku historikoan birsortutako etxeak daude, eta Xabi Otero Jauzarreako zuzendariari interesgarria iruditu zitzaion beraiekin kontaktuan egotea eta euskaldunak hara joatea euskal kultura eta hizkuntza azaltzeko: Euskal Herria non dagoen, euskaraz hitz egin, euskal musika eta dantza erakutsi...

Nola hasi zinen Jauzarrean?

Nire amona Jauzarrean zegoen, eta beragatik sartu nintzen.

Nola sortu zitzaizun Kanadara joateko aukera?

Duela lau urte inguru amonak esan zidan Kanadara joan behar nintzela. Amona aurretik egon

"JAUZARREAK EUSKAL HIZKUNTZA ETA KULTURA BABESTU EGITEN DITU"

"JAUZARREAKO KIDE NAIZ, ETA KANADARA JOAN BEHAR NINTZELA ESATEN ZIDATEN"

"GOTORLEKUAN ETXE BIRSORTUAK DAUDE, ETA HORIETAKO BAT EUSKALDUNEN ETXEA DA"



EGOKI
Ventanas PVC Leihoak

www.ventanasegoki.com

948 563 253 Arkinoturri Industrialdea • Olazti

EROSOTASUNERAKO PENTSATUAK

Diseinu soileko lehio berriak

Erakusketa: Olite kalea 16 • Iruñea



zen, 2018an proiektuarekin hasi aurretik lekua ikustera joan zirelako. Xabi Otero Jauzarrako zuzendaria da, eta bertan Atlantiar kongresua egin zuten. Bertan hasi zen programa. Bueltan amonak esan zidan bai ala bai joan behar nintzela.

Noiz joan zinen?

Aurtengo udan, bi hilabetez. Uztailaren 1etik abuztuaren 31ra. Aurreko urtean joan behar nintzen, baina Covid-19 zela eta urte honetara atzeratzea erabaki genuen.

Zer egin duzue bertan? Zein izan da zure lana?

Gotorlekuan XVIII. mendeko hogeitaz bat etxe birsortuta daude, eta haietako bat euskaldunen etxea da: Maison DesRoches. Toki historikoan sartzean ikusten den lehenengo etxea da. Bertan pasatzen genuen denbora gehiena, eta euskal kulturari buruz hitz egiten genuen, euskal musika eta dantzak interpretatzen genituen, azalpenak ematen genituen eta abar. Euskal kultura azaltzen hasi ginen eta denak begira gelditzen ziren, non dagoen galdetzen zuten, Espainia edo Frantzia den... Pertsonen historia kontatzea da, eta oso polita izan da. Etxe horretako historia ere kontatzen genuen. Kontatzen dena egia da. Oso dokumentatuta dago. Gotorlekua garai batean bezala dago, baina herria birsortu zuten. Turistek bertan lo egin dezakete, eta guk egun batean ere kartzelan lo egin genuen. Mamuak zeudela esaten zuten, eta esan genien agian euskaraz hitz egiten bagenien erantzuten zutela. Esperientzia berezia izan zitekeen, baina ez. Militarren eraikina ere badago eta 12:00etan eta 17:00etan kanoiekin tiroak botatzen dituzte, eta botatzeko aukera izan genuen ere.

Garaiko jantziekin, gainera.

Bai, egunero. Bost egunez jantzen ginen. Jantziak Maritzuli konpainiakoak dira, Claude Iruretagoyena eta Jon Olazcuagarenak. Miarriztekoak dira eta euskal jantziak egiten dituzte. Dena dokumentatuta dago. Haiek dituzten artxiboetan begiratu dute eta horren arabera XVIII. mendeko euskal jantzi bat osatu dute, baita ehunak ere.

Zer egin duzu prestatzeko?

Historiaren informazio guztia pasa ziguten, eta han, euskaldunen etxean, hango bi pertsonekin geunden eta beraiei entzuten ere

asko ikasi genuen. Alde batetik, historia ikasi genuen eta gero dena ongi begiratzen genuen eta bertan esaten zutenarekin ziurtatzen genuen.

Zein zen zure historia?

Elaia Inchausperekin joan nintzen, Baionakoa da, eta gotorlekuko epailearen alabak ginen. Epailea Euskal Herrikoa zen, Hendaiakoa, eta han ezkondu zen. Hasieran arrantzalea zen, gero merkataria eta ikasten aritu zen epaile izatera iritsi zen arte. Gu han jaio ginen eta nik 13 urte nituen eta lagunak 18 urte. Klase ertainekoak ginenez eskubide gehiago genituen, izan ere, baziren langile asko behe klasekoak zirenak eta beste batzuk goi mailakoak. Den-dena oso dokumentatuta dago eta guk errealitatera eramán dugu.

Parte hartzeko zerbait berezirik egin behar izan duzu?

Egia esan ez. Jauzarrea talde txikia da eta nik lau urte daromatzat bertan. Xabik beti esaten zidan parte hartu behar nuela, joan behar nintzela. Jauzarrea nondik datorren eta egiten duen lan guztia ezagutzen dut. Orduan, aurreko urtean joan behar nintzen baina atzeratu genuen eta aurten joan naiz. Jauzarrearik gabe ez zen Unama'ki programa existituko, eta azkenean esfortzu handia egiten dugu.

Esperientzia ona izan da?

Oso ona.

Eta errepikatuko duzu?

Posible bada, bai. Gainera, lagun pila bat egin ditugu, tartean apirilean Euskal Herrira etorriko den bat. Aurreko urtean joan zirenak berarekin egon ziren eta Goyetche zenez bere abizena euskalduna zela esan zioten. Bera baietz, kontatu ziotela bere aitona izan zuela aurretik euskaldunen bat eta interes handia zuen bere familieren historia ezagutzeko eta etorri behar ziren. Goietxe familia oso ezaguna da irla guztian, eta euskaldun abizen asko dago ere.

Leku historikotik ateratzeko denbora izan duzue?

Bai, boluntarioak ginen eta bagenuen denbora libre. Guztira, 1200 ordu inguru egin behar genituen.

Kanada horrela izatea espero zenuen?

Bai eta ez. Horrela espero nuen, baina Amerikako Estatu Batuetako eragin handia du. Baina badauka bere identitatea ere.



Louisbourgeko Emma Goyetche eta Maddi Beltza. © XABI OTERO-JAUZARREA



Louisbourgeko aktoreak. © XABI OTERO-JAUZARREA



Maddi Beltza, Elaia Inchauspe eta Emma Goyetche. © XABI OTERO-JAUZARREA

"17 URTEREKIN BI HILABETE BAKARRIK KANADAN EGOTEA... ESPERIENTZIA OSO ONA IZAN DA"

"ARROPA ERE ARTXIBOETATIK EGIN DUTE, ETA XVIII. MENDEKO JANTZI BAT OSATU DUTE"

Zer da gehien gustatu zaizuna?

Dena. Hango jendea, bereziki. Oso eskuzabalak ziren, Euskal Herriko jendearekin oso antzekoak; oso jatorrak. Agian euskaldunen jatorria nabaritzen da. Kalen gindoazela jendeak eza-gutu gabe agurtzen gintuen, haien etxeetara afaltzera gonbidatzen gintuzten...

Eta gutxien gustatu zaizuna?

Agian gauzak ingelesez azaldu behar izatea. Azkenean, hemen Euskal Herriko historia oso nahiko barnetatuta dugu, euskaraz, baina gero ingelesez azaldu behar izatea zaila izan zen. Hasieran ere ulertzea zaila zen, guk ingelesa formala ikasi dugulako eta han erabiltzen dutenak ez du zerikusirik. Ez da ulertzen.

Espero ez zenuen zerbait ikasi duzu?

Hemen oso janari ona dugula, oso gaizki jaten dutela han. Hengoan janaria baloratzen ikasi dut.

Zertan lagunduko dizu horrelako esperientzia batek?

Azkenean, 17 urterekin bi hilabete bakarrik Kanadara joatea, etxe batera bakarrik bizitzera, etxeko gauza guztiak egin behar izan ditut. Elaiarekin egon naiz etxean eta aurten, gainera, urakan bat egon zen irlan eta etxe guztiak hautsi ziren, beraz, biztanleak apartamentuetara joan behar izan dira bizitzera eta ez zegoen apartamentu librerik. Gotorlekuko lankide batek esan zuen berarekin bizitzera joan ahal ginela eta emakume horren etxean egon gara.

Espektatibekin joan zinen?

Bai. Aurreko urtean joan zirenekin hitz egin nuen eta oso esperientzia polita zela kontatu zuten.

Eta bete dira?

Eta gainditu ere, bai.

Zein da proiektuaren hurrengo urratsa?

Programarekin jarraitzea. Hiru edizio egin dira: 2019an, 2022an eta aurtengoa. Jazaurreatik nahi dute mutikoak animatzen saiatu. Beti neskak joan gara, bi neska urtero. Beraz, programa egiten jarraitu nahi dute eta geroz eta jende gehiago joatea.

Eta orain zein da zure lana?

Hurrengoetara joango direnak lagundu eta edozer gauza jakin behar badute azaldu. Jendea behar badute, joango naiz.

Jauzarreak programa gehiago ditu?

Bai, ez dira horrelakoak baina gehiago ditu.



ASTEKOA

JAVIER CASTEIG BARANDIARAN

Argazki bat

Aurreko egunean, ikasturte hasierarekin batera, argazki harrigarri bat zabaldu zen sare sozialetan. Bertan, Altsasuko Institutuko ezkaratzaren gaineko terrazan auto bat aparkatuta agertzen zen.

Jakina, irudia berehala zabaldu zen sare sozialetan eta mota guztietako iruzkinak egiteko aukera eman zuen, baita umorea baliatzeko ere.

Baina zein zen ekintza horren benetako asmoa? Helburua, beste behin, Altsasuko Institutuko ikasleak ikastetxera oinez edo bizikletaz bertaratzeko animatzeko zen, autoak bazter batean utzita, goiko terrazan aparkatuta. Beste urrats bat jasangarritasunaren eta mugikortasunaren bidean.

Gaur egun Altsasuko ikasleek jada ez dute bertaratzeko autobusik, eta oinez edo bizikletaz joatea da helburua, eta ez gurasoekin autoz.

Egia da, batzuetan, eguraldia lagun, errazagoa dela oinez edo bizikletaz joatea beste zenbaitetan baino. Baina ezin ezkuta sarbideek ere lagun behar dutela helburua lortzeko.

Gaur egun oinez joateko aparteko arazorik ez dago, ibilbidea nahiko ongi atonduta dagoelako. Baina bizikletaz joateko arazoak handiagoak dira. Bidegorria ezinbestekoa da.

Beste saiakera bat bidegorria lortzeko. Lehenago hainbat saiakera eginak baitira: badira urte batzuk ikastolarekin batera eta Dantzalekuko erabilitzaile diren kirol taldeen sinadurekin udalaxean eskaria aurkeztu zela. Ondoren sinadura bilketa egin zen, eta bileraren bat edo beste udalarekin konponbidea eskatzeko.

Eskatutako bidegorriaren proiektua agian ez da erraza, baina bai guztiz beharrezkoa.

Nik uste, udalak ausardia beharko lukeela horrelako plangintzari ekiteko, eta egia bihurtu Altsasuko Institutuko asmoa eta leloa: bizikletari bide eta autoari aire!

HARA ZER DIEN

Zure zahartzarora, gero eta hurbilago?

SAKANAKO GIZARTE ZERBITZUAK

Oraindik zaharra ez banaiz, jabetzen naiz egunen batean, beti ere dena ongi badoa, zahartzarora iritsiko naizela? Badakit zahartze prozesua jaiotzen naizen unean hasten dela eta gero eta hurbilago dudala nire zahartzarora? Zer pentsatzen dut zahartzaroz? Zein harreman dut inguruan ditudan adinekoekin? Hirugarren adineko pertsona buruz aritzen naizenean non jartzen dut fokua?

Gustatuko litzaidake zahartzaroz dugun irudia eta batez ere gizarte honetan gure zaharreei ematen diegun lekuaren inguruko hausnarketa sortaraztea...

Egia da "Zahartzaro" kontzeptua ezberdina dela edo izan dela sasoi, testuinguru eta bakoitza bizi eta garatzen den kulturaren arabera. Erdi aroan 40 urteetako pertsona bat, zaharra zen; 30 urteetatik gorakoak zahartzat hartzen zituzten eta

era berean jakintsutzat bere bizi ibilbidean barneratutako eskarmen-tua kontuan hartuta.

Gero eta urte gehiago bizi gara, horregatik ez bakarrik hirugarren adina baita laugarren adinari buruz ere hitz egiten ari gara garai haue-tan. Beraz, gero eta luzeago izan behar bada gure bizitza, ez zaigu komeniko, bada, bizitza garai horri eskatzen duen garrantzia ematea denon onurako?

Adinekoek gizartean duten zere-gina aldatuz joan da denborak aurrera egin ahala. Eremu tradi-zionalenetan adineko helduak errespetatutako eta gurtutako figura izaten jarraitzen duen beza-la, gizarte modernoek bigarren mailan utzi dute adinekoek gaur egungo gizartean duten zeregina. Inkusioa, parte hartzea eta bere espazioa berreskuratzea funtsez-koa da hirugarren adinekoek adierazten dutena baino ikuspegi baikorragoa eskaintzeko.

Adinekoak komunitatearentza-ko zama direla ikusteak ikuspegi murriztailea eta alboratua izaten jarraitzen du. Australia, Japonia edo Txina bezalako herrialdeetan, non adinak jakinduriaren sinoni-

moa izaten jarraitzen duen, interes bereziarekin baloratzen da adine-koek garapen kultural, intelektual eta politikoari egiten dioten ekar-pena. Jarrera horiek dira, gizartean adinekoek duten zeregina berres-kuratzearen aldeko ikuspegi alda-ketaren norabidea markatu behar-ko luketenak.

Egitura sozialen aldaketak mote-lak dira. Beharrezkoa da hainbat mailatan eraldatzea. Gizarte poli-tikak, asistentzia egiturak, gizartean iritzi eta adinekoek beren buruaz duten kontzeptua ere aldatu behar dituzte.

Kontuan hartuta belaunaldi-arte-koak garela definizioz, hori bera da dugun erronka, belaunaldi-arte-ko harremanak piztea, adin ezberdinetako kideen arteko harre-manak, elkarreragin hori bilatuz. Gure adinekoei aukera eman beharko genieke bizitza osoko esperientzien balioa eta horien bidez lortutako jakinduria gurekin partekatuzko, besteok ekarpen horiez elikatuzko. Haiek freskota-suna, modernitatea, indarra, egungo garaiko bizipenak jasoko lukete, belaunaldien arteko truke horretan elkarri aberastuz.

GUTUNA

Chivite andreari, eta gobernu kideei

ERKUDEN BARANDIARAN GOÑI ETA ANGERU MIKEO AZPIROTZ

SAKANAKO ALTXA BURUA

Aurreko legealdian amaieran, alderdi abertzaleek eta *Zurekin Nafarroa* ausardia falta aurpegiatu zioten Chiviteri. Legealdi berriari begira, batzuek ulertu nahi izan genuen euskaldunon eskubideen alde ere ezarri nahi zutela oinarriren bat, baina, ez. Chivitek eta PSNk, lehen bezala, ausart. Marra

gorriak PPK eta UPNk bezain argi. Abertzaleek eta "zurekin Nafarroa" ahuleriaz eta utzikieriaz. Ondorioz, gobernurako hitzarmena zehaztasunik gabeko hitz multzoa, besterik ez.

Batzuek uko egiten diote ikasteari. Tamalgarria! Horrela, zerbitzu publikoetan euskara baloratzen bada, euskaldunak "pribilegiatuak" omen. Euskaldunoi ukatu egiten digute euskaraz egiteko dugun eskubidea. Haienzat gaztelania hegemonikoa da. Hizkuntza hierarkia ezartzen dute, euskaldunon eskubideak

bortizki zapalduz. PSN horien artean dago. Guztiz ideario politizatua eta uniformizatzailea du, PP-VOXetik gertuago.

Horregatik, Chivitek inbestiduran erabilitako hitzak "pluraltasuna, berdintasuna eta bizikidetzat" euskaldun askorentzat demagogia hutsa dira, txiste sarkastiko samarra.

Orain, hirugarren legealdian ustez euskaltzaleak gobernu arduetan edota babesa ematen ari direla, ez dugu urrats bat bera ere aurrera egin euskaldunon eskubideak betearazteko eta bermatzeko, alderantziz baizik. Nonbait,

alderdi abertzale eta *Zurekin Nafarroarentzat* euskara folklore mailan gelditzen da, botoak eskuratzeko marketinean.

Baina, euskara, Nafarroa osoan erroak dituen jatorrizko hizkuntza. Milaka nafar euskaldunok euskaraz bizitzeko erabakia hartua dugu. Hori horrela, hizkuntza zapalketa hau demokratikoki onargarria ez delako, Gobernu berriaren lehen ehun egunetan argibideak ikusi beharko lirakeke. Horretarako, Alderdi abertzaleek eta *Zurekin Nafarroa* honako premiazko neurri hauek exijitu behar dituzte:

- Euskararen lege berria, ofizialtasuna Nafarroa osoan.
- Euskara planak Nafarroako Gobernuaren departamentuetan, profilak zehaztuz eta euskarazko arreta bermatuz.
- Euskara, atzerriko hizkuntzak baino gehiago baloratu, beti.
- Euskaldunon eskubideak juridikoki blindatu, epai diskriminatzailezik ez.
- Nafarroa osoan, euskara sustatzeko Plana.
- Horiei PSNk ezetza emanez gero, alderdi abertzaleei eta *Zurekin Nafarroari* jokabide duina eta koherentea galdatzen diegu.

guaixe

SAKANAKO ASTEKARIA

www.guaixe.eus

GK diseinu zerbitzua:

Ainara Santiago Langarika
info@gkomunikazioa.eus
948 564 275 (3 luzapena)
619 821 436
Ainhua Etxeberria Pikabea
gk@gkomunikazioa.eus
618 640 056

Administrazioa:

Gema Lakuntza Lopez
admin@guaixe.eus

Zuzentzailea:

Patxi Flores Lazkoz

Lege gordailua:

NA-633/1995

Tirada: 3.200

LAGUNTZAILEAK

Mank

s a k a n a

BAZKIDEAK



Erredakzio burua:

Alfredo Alvaro Igoa
guaixe@guaixe.eus

Erredakzioa:

Maidor Betelu Ganboa
kirolak@guaixe.eus
eta Erkuden Ruiz Barroso
kultura@guaixe.eus

Maketatzailea:

Iune Trecet Obeso
maketazioa@guaixe.eus

Publizitatea:

Eneida Carreño Mundiñano
publi@guaixe.eus

Koordinatzailea:

Goizeder Anton Iturralde
fundazioa@guaixe.eus

ARGITARATZAILEA:

Guaixe Fundazioa. Foru plaza 23-1.
31800 Altsasu
948 564 275
618 882 675



Gobierno de Navarra
Nafarroako Gobernu

Auto bat Altsasu institutuko teilatuan

Horrela ikastetxeak sormena, jasangarritasuna eta aldarrikapena uztartu ditu; landuko duten 'Mugitu' pedagogia proiektuaren abiapuntua da, Altsasuko ikasleak bizikletaz etortzera animatu nahi ditu eta haiendako bidegorri bat aldarrikatzen du

ALTSASU

Ezohiko irudi bat: auto bat ikastetxeko sarrerako teilatu gainean. Irudi harrigarri horrekin hasi dute ikasturtea Altsasu Derri-gorrezko Bigarren Hezkuntzako Institutuan. Autoari lotuta globo batzuk daude, globo sortak autoa airean atera nahiko balu bezala. *Bizikletari bide, autoari aire!* mezua zabaldu nahi du ikastetxeak haren bidez. Bestalde, institutuko sarrera nagusiaren ondoko paretan, bestelakoa da irudia: hiru bizikleta daude zintzilik, eta, azpian, belardi bat dute; belar artetik atera diren hiru margarita erraldoi daude ikusgai. "Bi irudi multzo horiekin bizikleta gehiago eta auto gutxiago mezua zabaldu nahi dugu. Hau da, bizikletari bidea egiteko, autoak bidetik desagertu daitezen, 'aire!' joan daitezen", azaldu dute ikastetxeko zuzendaritza taldeak.

Altsasu institutuak 585 ikasle ditu ikasturte honetan. Sakana-ko gainontzeko herrietatik ikastetxera autobusez joaten dira ikasleak, baina 260 bat ikasle altsasuarrendako ez dago garraio publikorik. Eta institutuaren ondoan Iñigo Aritza ikastola dago. Ikastetxerako eguneroko joan-etorria "ikasle batzuek oinez egiten dute, besteek bizikletaz eta beste askok autoz", azaldu dute ikastetxetik. Ondorioa jakina da, ikastetxeko sarrera-irteera orduetan "ibilgailu, autobus eta oinezkoen pilaketa arrisku-tsuak sortzen dira". Ikastetxetik gaztigitatu dutenez, "horri gehitzen bazaio argiztapen eskasa, eta lurzoru eta espaloien egoera txarra, arriskua biderkatu egiten da. Horregatik behar-beharrezkoa jotzen dugu ikasle horiei guztiei konponbide bat eskaintzea: argiztapen egokia, errepidea eta espaloiak berritzea, eta bizikleta, patinete edo oinezkoiegi egokitutako bidea egitea; horrela, Altsasu jasangarriago, osasun-



Hegan aterako dela dirudien autoa institutuko sarrerako teilatuan. UTZITAKOIA

"SARRERA-IRTEERETAN OINEZKO, AUTO ETA AUTOBUSEN PILAKETA ARRISKUTSUAK SORTZEN DIRA"

tsuago eta seguruago bat izateko", ziurtatu dute ikastetxetik.

Altsasu institutuko zuzendaritza taldeak jakinarazi duenez, ikastetxeko fatxadako irudia eta sarrerako teilatuko autoa, Mugituz izeneko pedagogia proiektu zabalago baten abiapuntua izan da, "diziplina arteko proiektua da, ikasturtean zehar garatuko dena". Proiektuan kontzientziazioa eta sentsibilizazioa jorratuko dituzte, batez ere DBH 4 eta Batxilergoko 1. mailetan. Besteak beste ingurumena, klima larrialdia, mugikortasun jasangarria edota enertetikoa landuko dituzte.

Ikastetxeak ekimenean lagundu dieten hiru enpresari eskerrak eman dizkie: autoa Desguaces La Cabañak eman eta ekarri zien, Excavaciones Maciak ibilgailua teilatura igo zuen eta Talleres Letonak bizikletak utzi zizkien.

Panel fotovoltaikoak

Autoak hegan alde egiten duen ikusi bitartean, ikastetxeko teilatutik beste albiste bat iritsi da. Oporrak baliatuz, Altsasu institutuak energia jasangarritasunaren bidean pausoa eman du. Izan ere, teilatuan panel fotovoltaikoak jarri dituzte. "Hemendik aurrera eguzkiaren energia xurgatuko da ikastetxea argiz hornitzeko", adierazi dute. Jakinarazi dutenez, "ikastetxean ez gauden bitartean sortzen den energia osasun etxera bideratuko da".

Hezkuntza Departamentuak guztira 93 plaka jarri ditu ikastetxean. Bakoitzak 555 W sortzeko aukera du, beraz, guztira 51,615 KW ekoiztuko dira. Azpiegiturak duen inbertsorea 50 Kwkoa da. Departamentuaren arabera argindar ekoizpena 5.6624,25 KW/h urteko. Panelen bidez ez da sortuko institutuak kontsumitzen duen elektrizitate guztia, baina ikastetxea erabiltzen ez den orduetan, arratsaldeetan eta asteburuetan, Altsasuko Osasun zentrorra bideratuko da energia. Eguzki panelak jartzeko departamentuak 38.000 euroko (BEZik gabe) inbertsioa egin du.



UTZUBARTXOREN TXOKOA

Kaixo! Utzubartxo naiz, urtero martxo aldera Arbizuko UtzubarEKOgunera hurbiltzen naizen sai edo putre zuria. Sakanan hilabete batzuk pasatzen ditudanez, tarte horretan Sakanako Mankomunitatearen Hondakin Zerbitzuko mezulari bihurtuko naiz.

Afera ezberdinak izan ditugu irakurgai azken asteetako idazkietan. Gaur, ordea, bakoitzak bere etxean egin dezakeen aprobetxamendurako errezeta elkarbanatu nahiko nizueke, zailtasun txikikoa, batetik; edozein egunerokoko elikagai soberakinekin egin daitekeena, bestetik. Goazen ba opil budina prestatzera, gogortutako opilak aprobetxatzeko modu bat.

Hasteko, gogortutako 6-8 opil, 200 gramo azukre, 750ml esne. Kanelazko bi makiltxo eta 6 arrautza behar ditugu. Behin osagaiak prest ditugula, esnea kanelarekin berotuko dugu eta irakiten hasten denean tapa jarri eta epeltzen utzi. Epeldu eta gero, kanela erretiratu eta azukre zein arrautzak gehitu ditugu. Opilak zati handietan moztu eta bandeja batean jarri. Ondoren, nahasketa gainetik bota eta 5 minutu inguru utzi opilek likidoa xurgatu dezaten. Azkenik labean 180°C-tan 20 minutuz sartu.

Goza ezazue eta gogoratu!

- Elikagaiak behar bezala kontserbatu.
- Aprobetxatu ezin dena bakarrik utzi zaborretan. Birziklatu hondakinak eta organikoekin konposta egin.
- Hondarrak sormen-errezetekin aprobetxatu.



Mank
s a k a n a

Financiado por el
Fondo de Reservas
Hondakinen Pentzik
Finantzazioa

Gobierno de Navarra
Nafarroako Gobernua

Utzubartxoren Txokoa Nafarroako Hondakin Funtzak finantzatu du. Hondakin Funtsa bereizi ez diren hondakinak zaborregian isurtzeagatik ordaintzen den zerga baten bitartez jasotako diruarekin hornitzen da.

"Obra horretan punta-puntako autoreek lan egin zuten bakarrik"

MIKEL GARZIANDIA GOÑI ARALARKO SANTUTEGIKO KAPERUA

Nafarroako Gobernuak Aralarko santutegiko erretaulari buruzko liburua argitaratu du. Hainbat egilek parte hartu dute idazketan, tartean etxarriarrak

Alfredo Alvaro Igoa UHARTE ARAKIL
Dagoeneko liburu dendetan edo Nafarroako Gobernuaren argitalpen funtseko Iruñeko liburu dendan salgai dago *El frontal de San Miguel de Excelsis y sus esmaltes de Limoges* liburua (32 euro). Santutegian bertan ere ale batzuk salgai jarri nahi lukete. Nafarroako Erdi Aroko artearen esplorazioan mugarri esanguratsua den lana. Liburuaren egile nagusia Lourdes de Sanjosedak, baina kolaboratzaileen artean Mikel Garziandia Goñi dago.

Erretaulak liburua behar zuen?

Beno, liburu bat, eta gainera nolakoa! Ia-ia 500 orri ditu. Liburu ederra benetan, egitura, itxura eta irudiengatik. Baina liburu hau ez bukatzen den lan bat, baizik eta abiapuntu bat hainbat arlotan: historian, artean, teologian. Zientzia proposamena da, ondoren aurreraxeago joateko. Ez genekizkien gauza asko orain badakizkigu, baina galderak beti gelditzen dira.

500 orriekin motz gelditu zarete?

10 urtetako lanak eta hainbat zientzia arlotako teknikariek egiten duten ikerkarpena. Beste askok irakurtzean emanen du. Liburuak ez dago soilik gure lurralderako pentsatuta. Asteartean aurkeztu genuen eta egun berean Parisetik eta Limogestik benetan zoriondu gintuzten; ikusi baitute liburuak, esmalteen arloan, nazioarteko

eragina izanen duela. Lekuko edertasuna du, baina zientzia aldetik asko zabaltzen da.

Beraz, liburuak fruitu berriak ekarriko ditu?

Bai. Nik nire ekarpenari *hurbiltaketa* deitu diot. Zientziaren metodoa hori da: beti hurbiltzea. Nire kasuan bagenituen susmo batzuk. Apezpikua zen Artaxoako Petri, Pedro de Paris deitzen ziotena.. Hari buruz datu erabat berriak sortu dira, ezezagunak zirenak. Beraz, Nafarroako historian hainbat arlo ireki ditugu, eta Iruñeko Erresumaren hainbat zantzu, pixka bat ilun zeudena, pixka bat argitu ditugu. Lan nahiko aberatsa da.

Nolaz sortu zen liburu horren ideia?

Mikel Larranbeberere Zabalak aspaldi esan zidan hor lan itzel bat egiteko dugula. Zailena da nor animatzen den 10-12 urtez besterik gabe horretan egotera. Ni santutegira iritsi berritan, Lourdes de Sanjose Llongueras, orain lana eder hau egin duena, etorri zitzaidan. Berak aurretik Silosko frontalari buruzko liburu ederra egin zuen. Eta esan zidan bere ametsa zela Aralarko erretaulako esmalteen ikerketa berak egitea. Curriculumak erakutsi zidan. Berak egin ditu Kataluniako orfebreria edo urrengintza bilduma orokorra. Siloskoa ikertzean, halako lan itzel bati aurre egiteko trebatuta zegoen. **Hamar urte esan duzu.**

Bai. Horretan hainbat jende inplikatu dugu. Esaterako, Miguel Angel Sagaseta Ariztegi, Urdiaingo, Dorraoko eta Lizarragabengoako apaiza. Bera izan dugu xagu bat bezala Nafarroako artxiboetan: Erresumarenean, elizbarrutikoan, katedralean... XVI-XVIII mendeen arteko iker-tu nahi genuen; Aralarko esmalteei buruz ea zerbait zegoen. Eta lortu ditu bi datu esanguratsu. Halako ikerketak ordu asko eskatzen ditu, bestela ezin da halako lan bat seriozki egin.

Hainbat ertzetatik begiratu diozue esmalteei.

Eloisa Ramirez Vaquero Erdi Aroan aditua eta Nafarroako Unibertsitate Publikoko katedraduna da. Berak Nafarroak XII. mendean Plantagenet familiarekin, Siziliarekin eta Normandiarekin zer hartu-eman izan zituen landu du. Garai hartan erresuma borrokan zegoen Nafarroako erregeak errege titulua izateko erabateko eskubidea izateko. Harremanak daude Rikardo *Lehoibhotzekin*, printze asko Nafarroako printzesekin ezkondu ziren... Susmoa zen bazegoela jendea punta-puntako diplomazialariak eta politikariak zeudela. Batez ere Antso VI. Jakituna eta Artaxoako Petri apezpikua ikertu ditu. Ramirezek Europa mailakoak egin ditu eta ni gehiagozentratu naiz Nafarroako Erresumako historian eta elizbarru-



Mikel Garziandia, Susana Herreros, Eloisa Ramirez, Rebeca Esnaola, Lourdes de Sanjose, Alicia Ancho

tiko historian. Nire artikulua euskaraz dagoenez, gaztelaniazko separata txiki bat atera dugu. Arte arloko lan gehiena De Sanjosek egin du. Vianako Printzea erakundeko teknikariak, Alicia Ancho Villanuevak eta Berta Balduz Azkaratek, lapurretaz geroztik (1979) erretaulan egin diren lanak erakutsi dituzte. Lapurretaren ondoren pieza gehienak berreskuratu ziren, baina ziurtatu nahi genuen pieza guztiak jatorrizkoak ziren edo ez. Bartzelonako kimika katedradunek ikaragarritzko lana egin dute. Pieza bakoitza X izpiekin sekuentziatu dute. Kimikoki ere aztertu dituzte eta Limogeseko esmalteak diren edo ez jakiteko parametroak ezarri dituzte. Beraz, ikerketa horrek laguntzen du munduko Limogeko beste esmalteak, zehaz-

"EZ GENEKIZKIEN GAUZA ASKO ORAIN BADA KIZKIGU, BAINA GALDERAK BETI GELDITZEN DIRA"

"ERRETAULARI BURUZKO LIBURUAK, ESMALTEEN ARLOAN, NAZIOARTEKO ERAGINA IZANEN DU"

tuta baitago urrearen eta esmaltearen kimika konposizioa.

Lan konplexua izan da. Etxarriarra naiz eta hau abesbatza baten lana da. Koruetan ahots desberdinak daude eta hemen guztiok lortu dugu nahiko doinu polita ateratzea.

Zeinek eskatu zuen erretaula?

Petri Rodakoak, Tolosako (Okzitania) gotzainak, Santiago de Compostelako katedrala egin zutenak Iruñeko katedrala egitera ekarri zituen. Iruñean, katedrala, maila ikaragarriko tailerra dago XII. mendean. San Migelgo kofradiak garai hartan 40.000 kofrade zituen, Nafarroako Erresumako denak dira kofradeak. Santutegia 1140an jada erabat bukatua dago. Hala ere, jendeak jarraitzen du santutegiari dohaintzak ematen: etxeak, errota, lurrak... Santutegiak halako aberastasuna eta gurutzaren erlikiak dauzka. Erlikia horien antza, itxura, lantzeko pentsatu zuten erretaula bat egitea, alde gainekoa, Aralarko santutegiko kaperan dagoena. Eta garai hartan zeuden munduko artista punta-puntakoenak aukeratu zituzten, Limogeko eta Silosko monjeak. Iruñeko urregileak ere lanera sartu ziren. Erretaulako harri bitxiak Atlas menditik, Afrikatik ekarriak dira. Obra horretan bakarrik punta-puntako autoreek lan egin zuten. Horregatik, De Sanjosek konparatu du San Petersburgoko



cho eta Berta Balduz liburu eta erakusketaren aurkezpenean. UTZITAKOA

Hermitage museoan daudenekin, New Yorken eta Londonen daudenekin. Gure esmalteak dira, ez bakarrik multzo handiena, osoena, baizik eta kalitate gorena duena. Horrek adierazten du Nafarroa XII. mendean zela Europako gune aberats eta potentetarikoa. Horrek dakar baita ere elizaren eta kulturaren aldetik, teologiaren aldetik, pastoraltzaren aldetik punta-puntako jendea. Horrek Artaxoako Petri-rengana eraman gaitu.

Berak sustatuko zuen erretaula. Santutegirako propio?

Uharte Arakil edo Iruñea? Gatazka horrek hainbat mende ditu. Badakigu Nafarroako Erresuma-ko gerra zibilean, frantziarrek Nabarreraiauzoasuntsituzutenean, katedral osoa hondatu zuten. Libratu zen bakar-bakarra Ama Birjinaren irudia izan zen (Santa Maria la Real). Gainerakoa, klaus-troko esmalteak, Teobaldo erregearenak eta denak lapurtu egin zituzten. Santutegiko arkeologia indusketan Fran Valle de Tarazaga Montero arkeologoak hilobi multzo bat opatu zuen: 1274an akabatu zituzten zazpi pertsonena. Gure hipotesia da pertsona horiek hil zituztela esmalteak eta gurutzearen erlikia defendatu zituztelako. Bestela, erretaula Iruñean egon balitz 1274an, Teobaldoren hilobikoekin gertatu bezala, desagertuko zen. Hori da gure ustea, nahiko sendoa nire iritziz. Baina,

Hitzorduak

Heldu den ostiralean, hilak 29, San Migel eguna da, egun handia santutegian. Bederatziurren asteazkenean hasi zuten eta egunero 18:00etan meza egonen da santutegian. Salbuespena igandea izanen da, 12:30ean baitago. Baina asteburuan bi omenaldi hartuko ditu santutegiak. Larunbatean, 12:30ean, Iruñeko katedraleko musika kaperak meza kantatuko du. Baita kontzertua eskaini ere. Aukera baliatuko dute omenaldia egiteko Iruñeko katedraleko kabildoan dauden kanonigoiei, kantariei eta Aurelio Sagasetari. Igandean, berriz, mezaren ondoren Deun Mikel Goiaingeruaren Kofradiari, kolaboratzaileei eta boluntarioei omenaldia egingen diete.

"KIMIKOKI LIMOGESKOAK DIREN EDO EZ JAKITEKO PARAMETROAK EZARRI DITUZTE"

esan bezala, liburu honek, eztabaida, ikerketa urrunago eramatea. **Zein funtzio betetzen zuen erretaula batek?**

Jendea XII. mendean santutegira joaten zenean, barruko kapera horretan sartzen zen, eta eguzkiak edo argizariak argitutako frontal horrek dirdira egiten zuten. Orain gardenak diren harri kristalak garai hartan atzean margoa, polikromia, zuten. Orduan zen: Jerusalem, zerua bezala, erabat urrezkoa eta kolorezkoa, guregana etortzen. Hori Bibliako ikuskaria da. Jendeak bolizko kutxatxoan zeuden erlikiei, gurutzearen erlikiari musu emanen zion, ez orain bezala San Migelen gurutzeari, eta, nolabait, bere parean ikusten zuena, nolabait, zerua zen; Jerusalem, abiatzen garen hiri saindua. Pastoralta helburua zuen. Herriari irudi bidezko katekesia ematen zioten, ez hitz edo ideia bidezkoa, baizik eta ikusten zen katekesi bat.

Egituragatik, esan daiteke komikiaren historiaren hasiera dela, ezta?

Bai. Eliza betidanik saiatu da, Katakombetan Erroman, II. mendean... Kristauen arabera Jesu Kristo ez da soilik jainkoa, ama batengandik jaiotako gizasemea ere bada. Beraz, gorpua sakratua da. Judutarren pentsaeraren kontra, gorputza margotu daiteke, irudiak egin daitezke. Gorpua Jaungoikoaren seinale baten modukoa baita. Horrek bermatzen du kristau artea posible egitea. Artaxoako Petriren garaian katarok esaten zuten artea deabruarena zela, idolo bat zela. Eliza katolikoak esaten zuten artea zela tresna bat fedea nolabait garatzeko, nolabait mundu honetan ikusteko abiatzen ari garen Jerusalem. Petriren teologian, bere liburuetan... Bagenekien zeudela, baina Petriren hiru liburu aurkitu ditugu Salamancan. Ederra izan da. Itzultzen ari dira, edizio kritikoa egiten. Agi denez, ikerketa honek atal asko ditu.

Besteren bat?

Sizilian tesi bat egiten ari dira: erresuma gisa Siziliak eta Nafarroak dituzten loturak ikertzen ari dira. Artaxoako Petrik izugarritzko adiskideak zituen. Hango elizgizon nagusia Palermoko Laborante zen. Nafarroako printzeen eta Ingalaterrakoen eta Champagnekoen arteko ezkontzak lotzen zituzten Petrik eta Laborantek. Lehen landare txikia zena adar gehiago ateratzen ari

Egitasmoak

Aralarko santutegirako makina bat egitasmo daude. Lakuntzetxe edo Deierrri etxea zaharberri ondoren, santutegirako sarreraren ezkerrean kisugileak lanean aritu dira. Garziandiak jakinarazi duenez, "komunak eginak daude. Denda martxan dago. Beti atzerapenak daude, hainbat gremio koordinatzea zaila delako". Bi horiek eta harrera aurten irekitzeko helburua zuten. "Nafarroako Parlamentuak eta Gobernuak eman zigun 100.000 euroekin, dagoeneko konkurtsoak, arkitektura eta ingeniari lanak egin ditugu, dagoeneko martxan jartzeko. Ametsa? 2024an ostalua egitea eta 2025ean martxan egote, bai gazteen aterpea eta baita ostalua ere", ahots gora amets egin du Garziandiak.

Bestalde, Europako Batasuneko atean jo zuten, San Migeleko Toki eta Bideen Europako Sarea Europako Kultura Ibilbide bezala aitortzeko eskatuz. "Eskaera apirilean aurkeztu genuen eta garagartzaroen ezetza eman ziguten. Zortzi proiektu aurkeztu ziren eta bakarrari eman zioten", azaldu du kaperauak. Aurreratu duenez, urte pare bat barru eskaera berriro egingen dute. "Bitartean gure lana da San Migel eta bideak lantzea eta sarea sendotu nahi dugu. Eta sendotu ondoren izendapena aurkeztuko genuke, ia-ia ezinezko izateko izendapena ukatzea". Garziandia koordinazio lanaz arduratuko da.

Bitartean, San Migeleko Toki eta Bideen Europako Sareak Mont Saint Michelen urteroko batzarra egin zuen. "Hango abadiak mila urte ospatzen zituen. Aralarko aingeruaren irudiaren kopia bat eraman genuen". Sarearen hurrengo bi batzarrik non izanen diren zehaztu zuten: 2024ko apirilean Gargano mendian (Italia) eta 2025ean Aralarko santutegian. Kaperauak gaztigatu duenez, "2025a Urte Santua izanen da. San Migelgo bideak ofizialak izan daitezke Vaticanoarekin harremanetan gaude orain. Urte horretan, Erromara joan aurretik, mundu guztiko gazteek gure santutegien arteko bidea egin dezaten".

Garziandiak nabarmendu nahi izan du egitasmo guztien atzean "talde lan asko" dagoela; "jende asko eta asko ari da isilka lanean. Eta, jakina, guk Lakuntzetxe aurrera eraman baldin badugu da jendeak 400.000 euro baino gehiago eman dituelako limosnetan, dohaintzan eta mezenasgoaren bitartez. Orduan, hau koru proiektu bat da, herriaren proiektu bat da. Betidanik San Migel ikusten dut herriaren santutegia, eta gu horren zerbitzariak gara. Betiere, irekiak. Edozeinek zer esan nahi digun, zer ekarpen egin nahi duen. Denak dira inportanteak guretzako".

zaizkion zuhaitz bat da. Orain horiei aurre egin beharra dago. **Beraz, liburuak berak erretaularen balioa bera handitzen du.**

Asko, bai. Nik esaten nuen: hau 10.000 mila piezako puzzle bat da; hasieran 1.000 pieza kokatuta genituen, beste 3.000 lurretik. Hainbat eta hainbat kokatzen ari garela uste dut. Baina gero lana dago. Baditugu laguntzaileak. Esate baterako, Xabier Irujo Amezaga Renoko Unibertsitateko (Nevada, AEB) Euskal Kulturaren katedran dago. Renoko eta Nafarroako bi unibertsitateekin bi urtetik behin sinposioak. Hurrengo litzateke honi segida ematea. Asmoa da hitzarmen bat egitea eta bi urtetik behin Aralarko gai hau eta beste batzuk garatzen joatea.

Hala ere, ez da liburu bakarrik, ezta?

Vianako Printzea erakundeok joan zen urtean esan ziguten li-

burua arteari eta ondareari buruzko jardunaldi batzuen barruan aurkeztuko zela. Liburuak aurkeztearekin batera, Nafarroako Errege Artxibo eta Artxibo Orokorren egoitzan *Urrea, hondarra eta sua: Nafarroako esmalteak* erakusketa mustu dute (lastailaren 22ra arte ikusgai). Nafarroan dauden esmalte politak ikusgai daude, batzuk ere Limogeskoak. Oso erakusketa polita da, txikia, baina dauden piezak zoragarriak dira. Aparte, artxiboan, jardunaldi tekniko bat programatu dute irailaren 29an. Erdi Aroko esmalteetan nazioarteko adituek, De Sanjosek eta bestek, beraien ekarpenak egingen dituzte. Eta nik seminarioko ikasturte hasieran nik hitzalditxo bat egingen dut: *Pariseko Petri, XII. mendeko iratzarpena*. Bukatzeko, De Sanjoseraren eskutik santutegira bisita gidatua egingen da irailaren 30eko 12:00etan.



Beñat Zelaia Barandiaran, Leioako bostetako bat.

"Larriena da bik 17 urteko espetxe zigor eskaera dutela"

BEÑAT ZELAI A BARANDIARAN LEIOAKO BOSTETAKO BAT

Euskal Herriko Unibertsitateko Leioako campusean izan zen ikasle greban atxilotu zuten duela 7 urte, eta asteazkenean epaituko dutenetako bat da altsasuarra

Alfredo Alvaro Igoa ALTSASU

Auzia salatzeke eta auzipetuen askatasuna aldarrikatzeko Leioako 5ak aske dinamika martxan jarri da. Altsasuko festetan manifestazioa egin zuten, *Leioako 5ak aske. Errepresio politikoa gelditu!* lelopean. Bihar, larunbatarekin, 13:00etan, kontzentrazioa izanen da udaletxe parean, eta mobilizazioa Iruñean, 19:00etan. Auziaren gastuei aurre egiteko festetan bazkaria egin zen eta diru bilketa kanpaina martxan dute (*labur.eus/26FIV*).

Ikasle greba deituta zegoen 2016ko apirilaren 26an. Zergatik?

Euskal Herriko Unibertsitatean (EHU) ikasle mugimendua hauspotzen ari zen. Herri unibertsitateak-eta sortzen hasi ziren. 2015ean mobilizazioetan Gastei-

"IDEIA ZEN EHU INTERPELATZEA, ABIARAZIAK ZITUEN ERREPRESIO KASUAK GELDIARAZTEKO"

zen eta Leioan atxilotuak izan ziren, Bilboko herri unibertsitatearen kontura espediente irekitzeko mehatxua egin zuten. Hiruretako errepresio jarrera gelditzea eskatu genuen 2016an. Gainera, errepresioa berriro ez zedin gertatu eskatu genuen EHUK Ertzaintzaren sarrera campusean ez baimentzea eta segurtasun enpresetako langileak campusetik kanporatzea. **Manifestazioa egin zen?** Bai. EHUKo dekanotza Leioan dago. Ideia zen EHU interpelatzea,

abiaraziak zituen errepresio kasu horiek geldiarazteko, bere egoitzan bertan presioa egitea nolabaiteko erantzuna jaso arte. Egun hartan ere hasiera-hasieratik segurtasun indarrak zeuden; borra kolpeka, kolpeak ematen eta bultzaka hasi ziren. Gutzira, EHUK deituta, Ertzaintza etorri zen, campus ondo-ondoan zain zegoena. Sartu eta atxilotu gintuzten.

Zer moduzkoa izan zen?

Bostok atxilotu gintuzten, baina beste edonor izan zitezkeen, momentuan hartu gintuzten. Dekanotza barruan geunden. Han izan gintuzten ordu batzuek belauniko paretaren kontra. Aske utzi gintuzten. Sustoa, baina, tira.

Zuendako 39,5 urteko espetxe zigorra eta 45.000 euroko isuna eskatzen dute. Zer egotzen dizute?

Duela urte bat edo bi jakin genuen zein ziren zigor eskaerak. Gutako birendako 2 urteko kartzela zigorrak eskatzen dituzte, desordena publikoengatik. Beste bati autoritatearen kontrako atentatua egotzi diote eta, horregatik, urte eta erdiko kartzela zigor eskaera du. Baina kasuko gauzarik larriena da gutako beste biri 17 urteko espetxe zigor eskaera egin dietela, desordena publikoengatik eta lesioengatik. Hasieran egoera nahiko tentsua izan zen, laburragoak izango zirela pentsatzen genuelako. Horrelako jarrera hartu dute. Horrelako mehatxu batekin, ondoren 10 urte-edo sartzen badizkigute, pentsatzeko gutxi dela.

Zuri zer eskatzen dizute?

2 urte, desordena publikoengatik. **Fiskaltzak eta akusazio partikularrak bat egiten dute?**

Pixka bat zein bere aldetik jo dute, baina nahiko eskakizun antzekoak dituzte. Bakoitzak kalte eskaera desberdinak egin ditu. Hortik 45.000 euro horiena, oraingoz. Pixka bat gutxiago edo gehiago izan daiteke, EHUK kalteen txostena ez baitu egin, horren arabera aldatu daiteke.

Zergatik halako zigor eskaerak?

Beldurra sartzea beste justifikaziorik ez du; beldurra sartzea garai horretan, garai hauetan. Gaur egun ere errepresioak ja-

"BETI DUZU BURUAN EZ ZARELA LIBRE, BIZITZAN ERAGIN DEZAKEEN KONTU BAT HOR DUZULAKO"

rraitzen duelako. Ideia betikoa da: antolakuntzan eta borrokan dabilzan horiek kikiltzen saiatzea, militantziak kostu pertsonala izateko... Gu itotzeko.

Zein da egoera EHU gaur egun?

Ikasle mugimenduak jarraitzen du EHUnen jarrera salatzen. Aipatu beharra dago 2022an, edo duela bi, ez nago ziur, Sakanako lau ikasle atxilotu zituztela beste 30rekin batera. Errealitatea ez da aldatu: EHU errepresio papera jokatzen jarraitzen du. Hori ere bai azpimarratu nahi dugu: EHUnen erantzukizuna zuzena da, halakorik ez balego, guk ez geniolako halako auzi bati aurre egin beharko.

Zer eskatzen diozue EHUri?

Izan beharko lukeen paper hori betetzea. EHU izatea espazio libre bat aldarrikapen politikoak egiteko, espazio libre bat gure prozesua aurrera eramateko. Zure bizitza moldatuko duen espaziora joaten zara. Baina gure kasuan, eta beste askoren kasuan ere, eta espazio bat entzule, zure bizitza moldatzeko joaten zen espazio bat bezala joaten zara, baina gure kasuan eta besteak beste askoren kasuan ere bai, atera gara eta 7 urtera oraindik ere gure bizitza baldintzatzen dabil autoritate autoritario hori.

Gertaerak 2016an izan ziren eta 2023an epaituko dira. Zergatik?

Ez dakigu. Ziurrenik, kalkulua egin dituzte eta ikusi dute badela garaia. Agian ere gure garaian geneukan komunitate hori, unibertsitateko ezagunak... Orduan atxilotutakoak aspaldi ez gara ikasleak, eta, beharbada, komunitatea deseginda dagoenez, pentsa dezakete erantzuna lausoagoa izango dela. Izan liteke ere egungo ikasle mugimenduari mezua bidali nahi izatea: halako eskakizunak daude unibertsitatean borrokatzeagatik.

7 urteko atzerapenak eragin dizu?

Atxilotu gehiago izan gintezkeen. Batera atxilotu gintuzten, eta bat-batean zigor eskakizun horiek... Nire zigor eskaeraz aparte, batez ere amorratzen nauena da bi lagunek 17 urteko eskaera dutela. Kristoren zama dute gainean. Beti daukazu buruan oraindik ez zarela libre, oraindik zure bizitzan eragin dezakeen kontu bat hor duzulako. Gainera, espediente bat daukazu irekita. 2 urterekin behar bada ez naiz sartuko, baina edozein gauzagarik prozesua berriz martxan jar daiteke, eta barrura joan.



Bazkaldu ondoren kantu eta dantzarako tartea ere izan zen. UTZITAKOIA

Unenuarrak elkartearen urteurrena ospatu dute

Mende erdi bete duela ospatu zuten larunbatean. Asteburuan ere ez da mugimendurik faltako Denok Bat elkarte; Unanuk Ergoienako Eguna hartuko du larunbatean eta elkarte zabalik egonen da. Igandean zuzendaritza berrituko dute

UNANU

Zehatz-mehatz zein urtetan sortuzen ez badakite ere, unenuarrek argi dute Denok Bat elkarteak 50 bat urte dituela. Eta hori ospatzera elkartzuzen larunbatean. Elkarteak unenuar guztiak auzatera gonbidatu zituen 13:00etan. 80 bat pertsona elkartu ziren ospakizunean. Ondoren, bazkideendako bazkaria izan zen. 52 bat izan ziren mahaiaren bueltan eseri zirenak. Majo bazkaldu ondoren kosta zitzaien mahaitik mugitzea, akordeoilariaren doinuak lagun, iluntzera arte egon ziren.

Denok Bat elkarte unenuarren elkartzeko tokia da. "Eguerdia eta iluntzera bakarren bat izaten da elkartean, jubilatua eta. Jendea ere tragoak hartzeraz joaten" dela azaldu du Santiago Berastegi Lizarragak, zuzendaritzako kideak. "Badira afaltzera elkartzen direnak. Hala ere, afari handirik ez da egiten urtean zehar, festak eta gertu ez badaude, behintzat. Boladak daude", gaineratu du. Ospakizunei lotutako ez parte, elkarteak azken aldirian kultur jarduerak ere hartu ditu. Esaterako, Ergoiena Bizirik-ek anto-

latutako ipuin musikatuta, edo Sakanako Mankomunitateko Berdintasun eta Euskara zerbitzuek antolatutako Liburu dasta: literatur solasaldiak idazleekin ekimena.

Azaldu duenez, igandean elkarte zuzendaritza berrituko dute. "Trailean berritzen dugu. Larunbatean Ergoienako Eguna Unanun ospatuko denez, igandera pasa dugu zuzendaritza berritzea". Ehun bat bazkide dira, baina jubilatuta daudenak ez dute zuzendaritzan sartzerik. Presidentea, edarien bi ardura-dun eta bi bokalez osatutako zuzendaritza batek kudeatzen du elkarte. Urte beterako kargua da, eta urtero guztiz berritzen da. Zuzendaritzaz aparte, egurra ekartzea eta hura txikitzeaz arduratzen den talde bat dago. Gainera, neguan egurra falta bada, bizpahiru kide egurra elkartera eramateaz arduratzen dira.

Bestela, larunbatean ere aparteko mugimendua izanen da Denok Bat elkarte. Izan ere, Unanuk Ergoienako Eguna 5. edizioa hartuko du. Horregatik, elkarte zabalik izanen da.

BEHAR DUZUN GUZTIA hemen DAGO
www.sakanakogida.eus

Altsasu:
 13 Udaberri Lorendea
 Akeita kafetegia
 Allianz aseguruak
 Arkatx Liburu-denda
 Arkupe Ixtxoi denda - altzariak
 Asensio Moda
 Bengoetxea Oinetakoak
 Ekin Moda
 Cristina Janari-denda
 Deportes Lezea kirolak
 Gaurxori Taberna
 Gertu Sakana
 Hiruon harategia
 Iher Kirolak
 Inmobiliaria agurain
 Iulene
 Izara cortina stor
 Joselen Moda
 Katuka
 Mari Carmen
 Marigorri
 ML Moda gizonezkoa
 ML Moda emakumezkoa
 Next Movil
 LARKA
 Lasa Kirolak
 Leku Ona jatetxea
 Liburunda paper-denda
 Lorea lorendea eta belardenda
 Pimpilinpauza

Ramos etxea
 Ramos elektrizitatea
 Santa Cruz altzariak
 Sakana optika
 Sarabe belardenda
 Sare oinetakoak
 Scooby Txakurren ile-apainketa
 Sorkunde harategia
 Tu Tienda Especial
 Txartel
 Txikitxo
 Xugu Informatika

Laluntza:
 Aralar burdindegia
 Juncal auto-zerbitzua
 Isidoro Arregi harategia
 Tania arraindegia

Etxarri Aranatz:
 Argiro Optika
 Derry Aske taberna
 Etxarri hortz-klinika
 Hostogorri altzariak
 Inñaki ileapaindegia
 Kaxeta liburu-denda
 Leku-Ona taberna
 Lizardi estetika zentrua
 Sabando

Olazti:
 Pako Harategia

Bazkide eguna ospatu zuen Gure Nahiak

Igandean izan zen eta eguerditik iluntzera arte iraun zuen ospakizunak. Osasuna hizpide zuen hitzaldi bat izan zuten hurrengo egunean. Dagoeneko ikasturte berriko ikastaroak hasiak dira eta bidaia eskaintza zabala dute urtean zehar

LAKUNTZA

Lakuntzako Gure Nahia jubilatutako elkarteak bazkidearen eguna ospatu zuen igandean. Ospakizunaren egitaraua Paz de Ziganda ikastolako helduen abesbatzaren kontzertuarekin hasi zuten. Hura entzuterako Lakuntzako elizan ehun pertsona baino gehiago elkartu ziren. Musika emanaldiak aho zapore ona utzi zien, "ekitaldi polita eta ikusgarria" izan zela jakinarazi baitute.

Bazkaltzera 78 pertsona elkartu ziren. Aurten urrezko ezteiak ospatu dituzten hiru bikote omendu zituzten: Juan Mari Olsagarrre eta Rosario Zubeldia, Felipe Artieda eta Mari Jose Imirizaldu eta, azkenik, Loli Goikoetxea eta Joaquin Sarda izan ziren. Diamantezko ezteiak bete zituen bikoteari aitortza elizan egin zioten: Angel Andueza eta Marisol Larrañaga. Bazkaldutik ondoren, mus txapelketa azkarra jokatu zuten lau bikotek eta akaberan sariak banatu ziren. Iñaki



Elkarteak Josean Pinedo medikuaren hitzaldia hartu zuen. GURE NAHIA

Bizkai akordeoilariaren doinuek elkartearen zeuden guztien arratsaldea alaitu zuen.

Astelehenean, berriz, Josean Pinedo mediku donostiarraren *Pandemiaren ondoren, zer?* hitzaldia hartu zuen Gure Nahia

elkarteak. Osasun krisi horren ondorengo beldurrak, jendea nola gelditu den... Pinedok ez zuen aurreneko saioa Lakuntzan. Jendeak gogoko du "hurbila" delako, eta harekin gustura egoten dira.

Elkarteaz

Gaur egun 228 bazkide ditu elkarteak. Lakuntzarrak, herritik kanpo bizi direnak, Altsasuko batzuk... Ahal diren guztiak bazkide izaten saiatzen dira. Zuzendaritzako kideen asmoa egoitza "bizirik" egotea da. Horregatik, ahaleginak egiten dituzte jarduerak antolatzeko. Dagoeneko martxan dituzte pilates, eskulana eta crochet ikastaroak. Azken hori berria da. Mus eta partxis txapelketak antolatzen dituzte. Euskara praktikatzeko Mintzazkide taldea ere badute, astean behin elkartzen dena.

Tarteka bidaia ere antolatzen dituzte. Urtean behin bidaia handi bat egiten dute. Horren erakusle, Turkiara joan dira maiatzean. Gainera, urtean zehar egun bakarreko iraupena duten hiruzpalau txango egiten dituzte. Eta bost eguneko iraupena duten bidaia pare bat edo ere egiten dituzte. Olaztiarrekin batera egiten dute. Irurtzundar batzuk ere animatzen dira haiekin joatera. Jendeak gustura hartzen du eskaintza.

Jendea elkartera erakarri nahia dago guztiaren atzean. Egoitza bizirik dago, baina, sikiera, astean behin joateko gonbidapena egin dute. Hala ere, aitortu dute garai bateko eta gaur egungo adinuen beharrak aldatu direla, desberdinak direla. "Ez da beti egoitza egotea, bestela ere nahiko sozializatzen dugu. Hala ere, etorri beharra dago".

Pentsioak 1080 euro arte osatzeko eskatu dute

Nafarroako hainbat sindikatuk eta gizarte eragilek foru gobernari eskaera egin diote

SAKANA

Pentsio sistema publiko batek zahartzaro duina bermatu behar duela sinesten dute. Horregatik, *1080 euro orain* herri ekimeneko eragileek Nafarroako Gobernari eskaera zehatza egin diote: konpromisoa har dezala, aurrekontuen bidez, 1.080 eurora iristen ez diren pentsioak osatzeko. Jakinarazi dutenez, "gaur egun, Nafarroan, Gizarte Segurantzaren gutxieneko pentsioa 743 eurotik 1.080 euro arte osatzeak 32.000 pentsioduni eragingo lieke; horietako %66 emakumeak lirake, eta kostua 60 milioi euro ingurukoa izango litzateke". Ziurtatu dutenez, "foru erakundeek eskumen juridiko eta legal nahikoak dituzte osagarri hori ezartzeko",

Borroka hori errenta bermatua handitzeko eskariarekin lotu dute, zailtasun ekonomikoak dituzten familiei gutxieneko diru sarrerak ziurtatzera bideratua.

DUELA 25 URTE...



Lanak Etxarriko etxe handian

Etxarri Aranazko Udalak "lekua hobeki aprobetxatzeko eta praktikoa izateko" udaletxea guztiz eraberritzeko lanei ekin zien. Itxura berria emanen zitzaion eraikinari. Bi urte irautekoak ziren, eta aurrekontua 1998an sei milioi pezetakoa (36.060,73 euro) zen. Beheko solairuan bildegia eta ekitaldiak egiteko gela egon ziren. Lehen solairuan bulegoa, idazkari eta alkatearen gelak, artxiboa, bilera eta hirigintza gelak eta komunak. Bigarrean, berriz, batzordeen eta alderdien gelak, epaitegia eta komunak.



UDALA

Aitortza Aristorenari

Martina Aristorena Ijurko 1923 irailaren 17an jaio zen. Ehun urte bete dituelako Etxarri Aranazko Udalak harrera egin zion igande eguerdian. Udal harrerara senideak lagunduta joan zen Aristorena, tartean alkate izandako Joxi Bakaikoa eta haren seme Joanes

Bakaikoa pilotaria. Udalaren izenean Silvia Sesma Nazabalek eta Naroa Anso Iriartek lore sorta eman zioten opari Aristorenari. Eguna meza eta bazkariarekin osatu zuen. Etxarri Aranazten 65 urte bizi badiu ere, Aristorenak dio bera lizerretarra dela.

UDA KO argazki LEHIAKETA



EPAIMAHAIAREN ETA BOZKETAREN IRABAZLEA:
'ETA ZERUBE...?' MIGUEL ANGEL ORMAZABAL

ARGAZKI GUZTIAK IKUSTEKO
WWW.GUAIXE.EUS

FESTAK

EGIARRETA

FESTAK

IRAILAK 22 Ostirala

15:00 Herri bazkaria.
17:00 Etxajua, mozorroak eta txokolatada.
17:15 Japoniar bonbak.
17:30 Mus eta briska lehiaketak.
Puzgarriak eta buruhandiak.
20:00 Modestorekin dantzaldia.
21:30 Zezensuzkoa.
22:00 Afaria.
23:00 Bingoa.
00:00 Modestorekin dantzaldia.
03:00 Festa jokoak.

IRAILAK 23 Larunbata

11:30 Jokoak, puzgarriak eta buruhandiak.
13:00 Otamena eta paella lehiaketa.
16:30 Gaztaren pisuaren lehiaketa.
17:30 Erronda Ilunberriko Txarangarekin.
21:30 Zezensuzkoa.
22:00 Afaria.
23:00 Bingoa.
00:00 GazteMusic DJa.
03:00 Festa jokoak.

IRAILAK 24 Igandea

11:00 Meza.
12:00 Otamena eta herriko helduei omenaldia.
17:00 Mus eta briska finala.
18:00 Los Tajudos del Norte mariatxiak.
19:30 Tortilla eta txistorra dastaketa.

UNANU

ERGOIENAKO EGUNA

IRAILAK 23 Larunbata

09:00 Ergoienako Birarako izena ematea.
10:00 Ergoienako Biraren hasiera.
13:00 Txaranga.
15:00 Bazkaria, frontoian.
17:00 Haur jokoak: 3 eta 6 urte bitarteko haurrentako haur ttikien txokoa eta 6 eta 14 urte bitartekoendako haurren joko dinamizatuak.
18:00 Aizkora apostua, eskoletako plazan.
19:00 Txaranga.

EKAI

FESTAK

IRAILAK 29 Ostirala

21:00 Txistorra jana, elkartean.

OLAZTI

SANMIGELAK

IRAILAK 29 Ostirala

22:00 Herri afaria, Olaztiko Gazte Asanbladak antolatuta.
23:30 Kontzertuak: Algoritmotik at, Arrixku eta Mandroll, OGAK antolatuta, gaztetxean.

UHARTE ARAKIL

SANMIGELAK

IRAILAK 29 Ostirala

13:00 Bermutiko punky reggae party: L'Kano ProD DJ set eta Bubblin' Soundsystem, San Juan plazan.
Uharte Arakilgo gazte asanbladak antolatuta.

Txalaparta



Taberna

948 467 070
Zumalakarregi plaza
ALTSASU



xapatero
taberna

Etxeko krocketak
eta bokatak

948 460 162 · Etxarri Aranatz

ZURE PUBLIZITATEA

HEMEN



Informazio gehiago:
948 564 275 | 661 523 245
publ@guaixe.eus
guaixe.eus/publizitatea/





Ekaiako Ganadero etxea, udalak esku hartuko duenetako bat.

Etxe hutsak, udalaren buru haustea bihurtu dira

Aurri egoeran edo arriskutsuak diren hiru eraikin egonkortzeko udalak 160.000 euro aurreikusten ditu

ARAKIL

Despopulazioaren ondorio nabarmena jendea herrietatik joatea eta herriak hustea da. Baina despopulazioak luzera beste ondorio batzuk ditu. Horien artean dago joandakoek utzitako etxeak, etxe hutsak. Inolako erabilerririk ematen ez bazaie, hondatzen hasten dira, eta gero eta handiagoa da denboraren joanak eta eguraldiak eraikin horietan uzten dituzten arrastoak. Garaiz esku hartzen ez bada, aldameneko etxeendako edo herritarrendako beraiendako arrisku bihurtu daitezke etxe horiek, aurri egoeran egonik, teilak, paretako harriak edo dena delakoa erortu daitezkeelako. Etxe osoak berak ere hondoa jo dezake.

Arakilgo Udalarendako egoera hori ez da arrotza. Hainbat eraikin begiz jota ditu. Baina bereziki hiru, Ekain, Zuhatzun eta Ihabarren daudenak. Oihana Olaberri Jaka alkateak azaldu duenez, "bi kasu ditugu: hildako pertsona batek utzitako ondasunak dira, baina jaraunsle legitimoek oraindik erreklamatu ez dituztenak, edo porrot egindako enpresa batenak dira".

Zuhatzukoa esleituta du udalak. "Ihabarkoa heldu den urtean egitekoak ginen, baina azken euriekin etxearen egoera okerrera doa, eta orain egitea pentsatzen ari gara. Baina aurrekontuaren arabera izanen da". Olaberriak azaldu duenez, "saia-tuko gara eraikinak ez botatzen, etxeak hustea da asmoa, garestiagoez izateko". Baina udalaren

esku hartzeak badu ondorioz: "guk eraikina egonkortu ondoren, norbaitek etxe edo geldidutza lursail horietan zerbait egin nahiko balu, udalak egindako gastua eraikina edo lursaila hartzen duenak bere gain hartu beharko du. Horrek etxea berrekitzea pila zailtzen du".

Hiruretan esku hartzeko Arakilgo Udalak 160.000 euroko aurrekontua du. Olaberriak aitortu duenez, "halako gauzek udala erabat hipotekatzen dute". Horregatik, Nafarroako Gobernuak Etxebizitza zuzendari nagusi berriarekin, Maite Arrondo Segoviarekin, hizketatzeko nahia azaldu du alkateak. "Bilera eskatuko diogu. Honek ezin du horrela jarraitu", azpimarratu du Arakilgo alkateak.

Industrialdeak

Arakilgo Udalak bi industrialde ditu. Bata Etxarrenen, Ardantzeta; bestea Nafarroako Autopistaren eta Irurtzungo industrialdearen artean, Erabidea. Nafarroako Gobernuak bakoitzarendako Udalez gaindiko Eragineko Plan Sektoriala egiteko zain dago Arakilgo Udala. Alkateak azaldu duenez, "azken industrialde horren kasuan 6 urte daramatzagu zain. Gobernuarekin hitzarmena sinatuta dugu, sei hilabetetan egin behar zuten, eta oraindik egin gabe dago. Guk ezin dugu ezer egin. Esan diguten azkena da abendurako egonen dela. Plan sektorialik ez badago ere, gobernuak lurrak salgai ditu".

Aralarko guardetxeko lanak hastear dira

Lanak emanda daude; enpresaren nahia berehala hastea da. Aralar Elkarteak bigarren eraikineko lanak lehenbailehen egitea nahiko luke, horretarako, Nafarroako Gobernuarekin bilera eskatuko du

SAKANA

Pitteka argia egiten ari da. Aralar Elkarteak hamalau urte daramatza eskaera egiten eta aurki forma hartzen hasiko da Aralarako guardetxea. Hura jaso zen tokian bertan elkartu ziren astelehenean Landa Garapen eta Ingurumen Departamentuko, proiektua egin zuen Nasuvinsako arkitektoa, eraikuntza enpresako eta Aralar Elkarteako ordezkariak. Lanak hasi aurretik planoetan jasotako neurriak tokira eraman zituzten. Lanak berehala hastekoak dira.

Aralar Elkarteako presidente Patxi Xabier Razkin Sagastibeltzak jakinarazi duenez, "enpresaren nahia da lanak lehenbailehen hastea; aste honetan edo hurrengoan. Lanak egiteko 2024ko iraiera arteko epea baldin badute ere, jarraian egin nahi dituzte lanak, neguan gelditu gabe, hala lehenbailehen bukatzeko. Eguraldiaren arabera izanen da hori". Nafarroako Gobernuak 2009an



Guardetxe zaharra. UTZITAKOA

Aralarren moztutako zuhaitzekin egindako materiala nola zegoen ikustera ere joan ziren.

Lanak Erki Construcción Sostenible SMk eta Ensambla Madera SMk eginen dute. Lanen truke 465.682,44 euro (BEZa barne) jasoko dute, aurrenak %90

eta atzenak %10. Aurten 74.747,86 euro jasoko dituzte eta gainontzeko 390.934,58 euroak 2024an.

Lan gehiago

Razkinek jakinarazi duenez, "guardetxea egitearekin batera, ingurumen teknikariek erabaki dute anfibioendako putzu bat ere egitea; guardetxea baino pixka bat beherago egonen da, nahiko gertu. Horretarako, eraikineko teilatuko ura erabiliko dute".

Aralarko Elkarteak emanen duen hurrengo pausoaren berri ere eman du Razkinek: "Landa Garapen eta Ingurumen kontseilari berriarekin, Jose Mari Aierdi Fernandez de Barrenarekin lehenbailehen bildu nahi dugu, guardetxeko lanen faseaz hizketatzeko". Bigarren fase horretan beste eraikin bat jasoko litzateke. Hartan ostalaritza zerbitzua, bertako produktuen salmentarako espazioa, proiektzio gela, komuna publikoak eta kudeatzailearen etxebizitza izanen lirateke.

sarea

Aralar eta Karrape irratiko esatariekin

Astelehenetik ostiralera
11:05ean
Beleixe irradian

...

bla

!?

Online entzuteko:
www.guaixe.eus

AGENDA

EMAGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKENEKO 13:00AK BAINO LEHEN. Tel.: 948 56 42 75 / 661 523 245 / kultura@guaixe.eus

OSTIRALA 22

ETXARRI ARANATZ
Solosaldua.

Istoria bat opari. Nola aukeratu irakurgai on bat? Dorleta Kortazar ipuin kontalariaren solosaldua.

17:00etan, kultur etxean.

ETXARRI ARANATZ Dantza
tailerra.

Disiden. Cia konpainiaren dantza tailerra, *DNA Dantza Garaikideko* programaren barruan.

17:30etan, kultur etxeko erabilera anitzeko aretoan.

LAKUNTZA Bilera.

Festa batzordeko bilera: festen balorazioa, hurrengoak eta abar.

18:30etan, udaletxearen batzar gelan.

ZIORDIA Ipuin kontaketa eta
tailerra.

Hitzaztanak (ahoz gozatzen duten hitz laztanak) ipuin kontaketa eta tailerra, *Bakea eta bizikidetzaren lantzen duten liburutegiak* programaren barruan.

18:30etan, liburutegian.

ETXARRI ARANATZ Hitzaldia.

Osasuna zure eskuetan. Osasuna berreskuratzeko eta gaixotasunari nola aurre hartu ikasteko Eneko Landaburu sendagilearen hitzaldia, Etxarri Hartz Klinikak antolatuta.

19:00etan, kultur etxean.

BAKAIKU Bilera.

Helduendako plaza dantzak ikasteko ikastaroaren ordutegia zehazteko bilera.

19:00etan, auzoan.

OLAZTI Zinema.

Irati filmaren emanaldia.

19:00etan, kultur etxean.

ZIORDIA Kontzertua.

Totem y Tabu taldearen rock and roll, country eta pop bertsioren kontzertua, Etxaleku tabernaren 30 urteurrenean.

LARUNBATA 23

UHARTE ARAKIL Bisita gidatua.

Aralarko trikuharriak bisita gidatua, Daniel Torrente Mirua Actividades de Naturalezako teknikariarekin.

Sakanako Garapen Agentziak eta Plazaola Partzuergoak antolatuta, jasangarritasun planaren barruan.

10:00etan, Aralarko santutegian.

ALTSASU Elkarretaratzea.

Leioako 5ak libre! kontzentrazioa.

13:00etan, udaletxearen aurrean.

ALTSASU Kultur jardunaldiak.

La Encina kultur elkartearen Kultur Jardunaldiak.

18:30 Kultur jardunaldien hasiera

Javier Olló Martínez
Altsasuko alkatearen
eskutik.

19:00 Ohore Damei bandak jartzea. Extremadurako eta Nafarroako ereserkiak Brotes de Encina taldearen eskutik.

19:30 Extremadurako jotzen erakustaldia Brotes de Encina taldeko haurrekin.

20:00 Ohore ardoa.

ETXARRI ARANATZ Dantza eta
musika emanaldia.

Etorbizuna dantza taldearen eta Etxarri Aranazko Abesbatzaren dantza eta musika emanaldia.

19:00etan, plazan.

OLAZTI Kontzertua.

Hutsun + JEL Trio taldearen *Artze* txalaparta eta jazz ikuskizuna.

19:00etan, kultur etxean.

IRURTZUN Antzerkia.

Mira el lado guay de la vida, Brian antzeulanaren emanaldia egingen du Orkoiengo Antzerki Tailerrak, Irurtzungo Antzerki Tailerren Topaketen barruan.

20:00etan, kultur etxean.

OLAZTI Zinema.

Loreak filmaren emanaldia, Olaztiko Gazte Asanbladak antolatuta.

22:00etan, gaztetxean.

OLAZTI DJ emanaldia.

DJ Charly Full Mix latindar festa: salsa, batxata, reggaeton, kumbia...

23:30etan, Barandi tabernan.

IGANDEA 24

OLAZTI Mendi irteera.

Sakanako Mendizaleen ibilbidea: Belate – Saioa – Artesiaga.

06:00etan, bus geltokitik.

SAKANAKO Bizikleta Eguna.

Sakanako XXIX. Bizikleta eguna, Sakanako Mankomunitateko Kirol zerbitzuak antolatuta. Ibilbidea: 37 kilometro.

09:00 Irurtzundik abiatu.

Bide erdian, Lakuntzan
hamaiketako.

13:00 Altsasura heldu.

LAKUNTZA Ezkil jotzea.

San Joan Bezperako ezquila jotzea egingen dute Lakuntzako ezkilazainek, Nafarroako Ondarearen Europako Jardunaldien barruan, Nafarroako Ezkilazainek antolatuta, Lakuntzako ezkilazainek eta udalaren laguntzarekin.

11:00etan, elizaren dorrean.

ALTSASU Kultur jardunaldiak.

La Encina kultur elkartearen Kultur Jardunaldiak; Bazkidearen eguna. Sagardotegi bazkaria eta adin gehien duten bazkideei omenaldia: Antonio Vilariño eta Nicolas Fresneda.

14:30etan, La Encinan.



UTZITAKOIA

ALTSASU Zelulatik pazientera. 10 urte elkarrekin lanean NavarraBiomed-en erakusketa.

Urriaren 9ra arte. Asteleheneetik ostiralera 17:30etik 20:00etara, ikuskizuna dagoen larunbatetan 18:30etik 20:00etara eta igandetan 18:30etik 20:00etara.

ZINEMA

ALTSASU

IORTIA KULTUR GUNEKO
ARETO NAGUSIAN

Las chicas están bien gaurkotasunezko filmaren emanaldia

Igandea 24: 19:00
Astelehena 25: 19:30

La voz del sol gaurkotasunezko filmaren emanaldia
Osteguna 28: 19:00

OLAZTI Magia ikuskizuna.

Ver para creer Peio Rivas ilusionistaren magia ikuskizuna.
17:00etan, kultur etxean.

IRURTZUN Kontzertua.

Sanba badago kontzertua.
19:00etan, Pikuxarren.

ASTEARTEA 26

LAKUNTZA Trebakuntza
saioa.

Soziolinguistika trebakuntza saioa udaletako eta euskara batzordeetako kideendako, Sakanako Mankomunitateko Euskara zerbitzuak antolatuta.
09:00etatik 11:00etara, Mank-eko egoitzan.

ASTEAZKENA 27

LAKUNTZA Trebakuntza saioa.

Soziolinguistika trebakuntza saioa udaletako eta euskara batzordetako kideendako, Sakanako Mankomunitateko Euskara zerbitzuak antolatuta.
17:00etatik 19:00etara, Mank-eko egoitzan.

Er **vit** **i** aluminio
PVC

Akaborro industrialdea 13 Irurtzun | 948 500 813 | info@aluminioserviti.es

LEIHOAK, ATEAK, BALKOI ETA TERRAZEN ITXITURAK

Erakusketa Irurtzunen

Etxe zaharren
berriztatze eta birgaitzea

OSTEGUNA 28

LAKUNTZA Liburu aurkezpena.

Nerea Baldaren *Azpimarrak* liburuaren aurkezpena, Lakuntzako Pertza elkarteak antolatuta.

18:30ean, Lakuntzako Pertza elkartean.

LAKUNTZA Batzarra.

Energia Berriztagarrien komunitateak sortzeko lehen bilera, Sakanako Garapen Agentziak antolatuta.

18:30ean, kultur etxean.

ALTSASU Aurkezpena eta hitzaldia.

Euskal Herriaren Euskarazek urriaren 7an eta 8an Villabonan eginen duen Euskaltzale Independentisten Topaketen aurkezpena eta Euskararen erronkak gaur egungo testuinguruan hitzaldia.

18:30ean, Kukurreka elkartean.

OSTIRALA 29

UHARTE ARAKIL San Migel eguna.

Mezak.

09:00etan, 10:00etan, 11:00etan, 12:30ean, 17:00etan eta 18:00etan, Aralarko santutegian.

IRURTZUN Tailerra.

Tramankulu tailerra, Pikuxarrek antolatuta.

17:00etan, Gernika plazan.

IRURTZUN Bertso saioa.

Epelketa nagusia bertso saioa, Pikuxarrek antolatuta.

17:30ean, Pikuxar ganbaran.

ETXARRI ARANATZ Dantza erakustaldia.

Disiden.Cia konpainiaren dantza erresidentziaren erakustaldi irekia, DNA Dantza garaikideko programaren barruan.

18:30ean, kultur etxean.

ALTSASU Hitzaldia.

San Pedro multzoaren Intxostia auzoaren eraikuntzari buruzko hitzaldia, Nafarroako Ondarearen Europako Jardunaldien barruan.

19:00etan, Iortia kultur gunean.

IRAGARKI SAILKATUAK

IKASTAROA

Artetallerra Altsasu: Marratzu, jolastu eta naturarekin irudimena askatzeko elkarrekin gozatu. Haurrendako ikastaroa astean egun bat eta helduendako astean egun bat edo hilean bi asteburu. Hasiera urrian da. Izena emateko deitu, Manola 634 446 954 telefonora.

Irurtzango Udalak helduentzako ikastaro eskaintzan izen ematea zabalik: Antzerki tailerra, irakurketa taldea, marrazketa eta pintura, hipopresioak, pilates, aerobik, GAP/bizkortzea, kirol entrenamendua, gorputz jarrera eta spinning. Aukeratu eta izena eman irailaren 27a baino lehen www.irurtzun.eus web orrian edo udaletxean matrikula ordaindu eta formularioa bete behar da bi kasuetan. Lehentasuna erroldatuek izango dute. Informazio gehiago kulturetxea@irurtzun.eus idatziz, udaletxean edo web orrian.

Aralarko Udalaren ikastaro eskaintzan izen ematea zabalik: Yoga, mantenimendu soinketa, oinarriko joskintza eta eskulanak dira ikasturte honetako eskaintzak. Informazio gehiago eta izen ematea www.arakil.eus web orrian edo Udaletxean.

Mank-ek Kirol egokitan igeriketa eta soinketa ikastaroak antolatu ditu: Igeriketa, astelehenetan, Arbizuko kiroldegian 17:00etatik 18:00etara. Urriaren 2tik maiatzaren 30era izango dira biak. Soinketa, ostegunetan, Lakuntzan 16:30tik 17:30era. Izena emateko 948 464 866 telefonon, Mank-eko kirol zerbitzuan edo kirolak@sakana-mank.eus helbidera idatziz. 50 euroko prezioa du.

Mank-eko kirol zerbitzuak adimen urritasuna dutenendako musika-terapia eta psikomotrizitate ikastaroa antolatu du: Asteazkenetan, 16:30tik aurrera Altsasuko Gaztegunean izango da, euskaraz (ulertzen ez duenari azalpenak gaztelaniz emango zaizkio). Ikastaroak 50 euro balio du (Milakolore elkartekoei elkarteak ordainduko die ikastaroaren kostua). Izena emateko epea irailaren 28an amaitzen da. Deitu 948 464 866 telefonora edo idatzi kirolak@sakana-mank.eus helbidera.

laren 28an amaitzen da. Deitu 948 464 866 telefonora edo idatzi kirolak@sakana-mank.eus helbidera.

LANA/NEGOZIOAK

ALOKAGAI

Altsasun 'Coworking' bulego autonomo eta urruneko langileentzat: Altsasun 4 edo 5 pertsonen artean partekatutako bulegoa; Wifia, inprimagailua, berogailua, kumina eta *office*-a ditugu. Aukera paregabea! Informazio gehiago 948 562 604 edo 603 417 554 telefonoetara deituz.

OHARRAK

Lakuntzako Udalaren euskara ikasleendako dirulaguntza: Aurreko ikasturtean euskara ikasi dutenendako dirulaguntza deialdia zabaldu du. 16 urtetik gorako lakuntzarreri zuzendua. Interesa duenak www.lakuntza.eus web orrian du aurkeztu beharreko dokumentazioa, urriaren 15a baino lehen.

Bakaikuko Udalak irailaren 30ean auzolanera deitu ditu herritarrak: Aukeran bost egiteko jarri dira Lakuntzako gaztainadiaren garbiketa, parkeko baranda ipini, markesina margotu, frontoiko baranda margotu edo frontoi ondoko erreka garbitu. Izena emateko udalaren WhatsApp edo Telegram bidez (622 268 161), udaletxera hots eginez (948 562 509), udaletxetik pasaz, posta elektronikoki bidez udala@bakaiku.eus.

Emakumeen bilgunearen zabalpen zerrenda marbxan: Altsasuko Udaleko Emakumeen Bilguneak Whatsapp aplikazioa zabalpen-zerrenda bat sortuko du, Berdintasun Zerbitzutik antolatzen ditugun ekitaldi eta jardueren berri emateko. Zabalpen-zerrendan parte hartu nahi baduzu, bidali iezaguzu Whatsapp-eko mezu bat zure izen-abizenekin eta zerrendan parte hartu nahi duzula adieraziz telefono honetara: 628 328 593.

Euskara hutsezko udalekuetara joango diren haur eta gazteendako dirulaguntzak: Udalekuak 5 egun eta 15 egun bitartean irau behar dute

eta ekainaren 15etik irailaren 30era bitarte burutu behar dira. Informazio gehiago www.sakana-mank.eus web orrian eskura dezakezue.

Errotuluak euskaraz jartzeko dirulaguntzak: Establezimendu komertzialei, ostalaritzakoei eta elkartei zuzendutako dirulaguntzak dira. Diruz lagunduko dira errotuluak, toloak eta ibilgailu komertzialen errotulazioa. Euskara hutsean idatzita dagoen errotuluak jartzeko duenari %50 ordainduko zaio, gehienez 500 euro emanen zaizkio. Euskaraz eta erdaraz idatzita daudenei %25a, gehienez 250 euro. Eskabideak aurkezteko epea 2023ko urriaren 31n amaitzen da. Informazio gehiago www.sakana-mank.eus web orrian.

Aralarko Santutegiko museon bisita gidatuak egiteko aukera: Aralarko Santutegiko museoa ikusi eta bisita egiteko ordutegiak asteartetik larunbatera 11:00etan, 12:00etan, 16:00etan eta 17:00etan. Igandetan 10:30ean, 11:30ean, 13:30ean, 16:00etan eta 17:00etan. Pertsona bakoitzak 3 euro ordaindu behar ditu.

Guardetxeko argazkiak biltzeko deialdia: Lakuntzako Zabalarte Elkarte Aralarko Guardetxe agertzen diren argazkiak biltzen dabil, eta erakusketak bat egin nahi dute "Guardetxe proiektuaren egoera eta egin daitezkeen hurrengo ekintzei buruz hitz egitea" du helburu. Halako irudiren bat duenak udaletxera bulego ordutegian joan daiteke argazkia eskaneatuko dute eta jabeari bueltatuko diote momentuan bertan.

Adur rol jolasa euskaraz eta doakoa: Telegram bidez jolastan den rol joko bat jarri du marbxan Eneko Azedok. "Adur - Azken erroka" Euskal Erdi Aro mitologikoan girotuta dago, Iruñetik hasi eta Euskal Herri guztiatik bidaiatzeko aukera ematen du, izaki mitologikoak aurkitu eta abenturak biziz. Telegram bidez esteka honetan sar zaituzke: <https://t.me/+ANOUJSCtsOM210>.

Arropa bilketa: Baduzu erabiltzen ez duzun arroparik, eta ez dakizu zer

egin? Arakigo udaletxearen arkupean bilketa gune bat irekitzera goaz. Hila-beteko lehen azoka egunean, asteartean, 11:00etatik 13:00etara. Errotxapean dagoen Elkarri Laguntza Elkarteak duen egoitzara eramango dugu, bilketaren biharamunean. Ixipuru Taldea 620 254 230 eta Mank Anitzartean 648 070 710 antolatuta.

Lakuntzako jendeari Gaztebokotik: Gaztebokotik lakuntzarrei jakinarazi dieenez, etxean erabiltzen ez dituzten eta gaztebokotik erabilgarriak izan daitezkeen objektuak hara eramantzeko. Kiroletako materiala, mahai jolasak, eskulanetarako materiala, etab. Gaztebokotik Uriz kalean dago eta larunbateretan eta igandetan 16:30tik 20:00etara egoten da zabalik, orduan eraman daitezke gauzak.

Konposta eskuragai: Sakanako Mankomunitatearen Hondakin Zerbitzuak jakinarazi du ondon har dezakeela konpost Arbizuko UtzubarEKOgune konpost plantatik. Astegunetan 08:00etatik 15:00etara joan daiteke. Nondik hartu jakiteko zerbitzuaren bulegotik pasa behar da. Zakuak eramatea gomendatzen da. Konpost gurdikadak ere eraman daitezke.

Sakanako Mankomunitatearen Euskara zerbitzuko dirulaguntzak: Euskaltzaleentzako, UEUn ikastaroak egin dituztenendako, euskara hutsez udalekuetara joan direnendako, euskara ikasten daudenendako eta Errotuluak (dendetan etab) euskaraz jarri dutenendako dirulaguntza deialdi ezberdin hauetan eskabideak aurkezteko epea zabalik dago. Eskabide guztiak Mankomunitatearen Lakuntzako egoitzan edo egoitza elektronikoren bidez aurkeztu behar dira. Ez dira posta elektronikoki bidez jasotako eskabideak aintzat hartuko.

iragarki@guaixe.eus
www.iragarkilaburak.eus

JAIOTZAK

• **Dara Poncela Perez**, irailaren 15ean Irurtzunen

EZKONTZAK

• **Riane Sylva Mendy eta Mendy Louis de Punthuang** irailaren 8an Irurtzunen

HERIOTZAK

• **Jose Antonio Moreno Ortiz**, irailaren 7an Irurtzunen

INFORMAZIO HAU EPAITEGIETAN ETA UDALETAN JASOTZEN DA. AGERTU NAHI EZ DUENAK, HAN JAKINARAZI DEZALA.

ESKELAK JARTZEKO: 948 56 42 75
edo eskela@guaixe.eus

- ▶ Eskelen tarifak: 55,90 € / 106,5 € / 143,70 € prezio hauek BEZa bame dute.
- ▶ Bazkideek %10eko deskontua dute.
- ▶ Eskelak jasotzeko azken eguna: Osteguna goizeko 11:00k baino lehen.



Izarra, Nafarroako tanatorioa

Gure lurra, gure jendea, gure sustraiak

BEILATOKIAK

ALTSASU ETXARRI-ARANATZ
Santa Cruz, 6 Nagusia, 2

948 05 90 90 • www.izarratanatorio.com

IRACHE
tanatorioak

Tanatorioak: Altsasu - Irurtzun - Lekunberri - Betelu - Leitza

"Betidanik"

- ☎ 948 19 70 70
- 📍 @Grupolrache
- 📺 Grupolrache
- 🌐 www.tanatoriosirache.es

Aurpegi berri asko espero dira Bizikleta Egunean

TXIRRINDULARITZA Igandean Irurtzundik abiatu eta Altsasun despedituko den XXIX. Sakanako Bizikleta Egunerako 200 izen emate baino gehiago jaso dira Sakanako Mankomunitatean. Eguraldia lagun, arrakastatsua izango dela espero dute

Maidar Betelu Ganboa SAKANA Sakanako Mankomunitateko Kirol Zerbitzuan dei asko erantzun behar izan ditu egunotan Amaia Gerrikagoitia kirol teknikariak, sakandar askok azken uneraino itxaron baitu igandeko XXIX. Sakanako Bizikleta Egunean izena emateko. 200dik gora sakandarrek eman dute izena. "Konturatu naizena da aurten partaide berri asko egongo direla, izena ematerakoan jendeak egin dizkidan aipamenengatik. Sakanako Bizikleta Eguna 29 edizio beteko ditu, urte asko dira, baina, zorionez, bere partaidetza etengabe berritzen da" azaldu du teknikariak.

Aurtengo edizioak harrera oso ona izan du, "jendea ilusioz dago, nabaritzen da. Berriei urtero errepikatzen dutenak gaineratuko zaizkie, eta 10 urtetik gora nagusirik gabe etor daitezkeenez, adin horietan ere neska-mutiko askok ematen dute izena. Oso kontentu gaude" gaineratu du.



Igandean partaidetza handia espero da.

Gomendioak

XXIX. Sakanako Bizikleta Eguna igandean 9:00etan abiatuko da Irurtzundik, eta Lakuntzan hamaiketako egin ondoren, ordu bata pasatuta Altsasura heltzea aurreikusten da (37 km). Txi-

rrindulariak eta euren bizikletak Irurtzuneraino eramateko, autobusak eta kamioia 7:45ean abiatuko dira Ziorditik, herri guztietan geldialdiak eginez. Proba bukatuta, Altsasutik abiatuko da zerbitzua.

Barranka Txirrindulari Taldeak ibilbidearen ardura eta kontrola izango du. Aurten Aralar txirrindularitza klubari dagokio ibilbidearen aurretik autoz joatea. Anbulantzia zerbitzua egongo da, eta Muruzabal eta Berri Bikes komertzioetako Joxi Lazkozek eta Joaquin Beltran de Herediak laguntza tekniko eskainiko dute.

Igandera begira, zenbait gomendio egin ditu antolakuntzak. "Bizikletak ongi prestatu behar dira. Segurtasuna bermatzeko ezingo da antolakuntzak zehaztutako ibilbidetik atera, eta, jakina, kaskoa derrigorrezkoa da. Hamaiketako norberak eramango du. Eta azken gomendioa, ongi pasatu eta Sakanaz gozatu".



2019an Dorraotik abiatu zen, 2022an Lizarragatik eta aurten Unanutik. ARTXIBOA

Ergoienako Biran, aurten Unanuren txanda

ATLETISMOA Bihar, larunbata, 10:00etan hasiko da Ergoienako XVII. Bira, Unanun. Izena ematea, zabalik

Aurten Unanu herria izango da Ergoienako XVII. Bira-Jose Mari Merceroren Oroimenezko 3. Saria lasterketako abiapuntu eta helmuga. Ergoienako Udalak eta Lizarraga, Unanu eta Dorraoko kontzejuek elkarlanean antolatutako lasterketarekin atletismoa eta kirola sustatu nahi dira eta Ergoienari bizia eman nahi zaio. Egun berean Ergoienako Eguna Unanun ospatuko denez, larunbata egun polita izango da Unanun.

Lasterketa goizean goiz abiatuko da, 10:00etan, Unanutik. 8,5 km dituen lasterketa oso gora-beheratsua da Ergoienako Bira,

hiru herrietatik pasatzen baita. Ergoienaren kokapen geografikoagatik lasterketa nahiko gozorra da, malda ugariarekin. Zorionez, eguraldi ona iragartzen dute, korrikalariak alde izango dutena.

Lasterketa Unanutik atera eta Dorraora joko du, buelta hartu eta berriro Unanutik pasatzeko. Segidan, Lizarragara helduko da, eta handik Dorraora joko du berriz, Unanuko helmuga bukatzeko. Izena ematea Unanun bertan egingo da, 9:00etatik aurrera. Lasterketa Sakanako Koparako puntuagarria da.



XOTA

Nafarroako seigarren kopa

ARETO FUTBOLA Osasuna Magna Xotak VII. Nafarroako Kopako finala jokatu zuen larunbatean ATP Iluminación Tudelano Ribera Navarraren kontra. Tuterako taldea izan zen aurreratu zena, baina Tonik eta Fabinok (2), sartutako golei esker, 2 eta 3 irabazi eta seigarren Nafarroako Kopa lortu zuen talde irurtzundarrak, Miguel Hernandezen zuzendaritzapean lehena.



UTZITAKOA

52. Otadiko Kristo Deunako txapelak, erabakita

PILOTA Altsasu Kirol Elkarteak eta Pilotajaukuk elkarlanean antolatutako 52. Otadiko Kristo Deuna Pilota Torneoako final handia igandean jokatu zen. Kategoria mistoetako finala oso borrokatua izan zen, baina azkenean Leire Oscozek eta Oier Mitxelenak 22

eta 18 irabazi zieten Goiuri Zabaletari eta Ekai Vicenterri. Afizionatuen senior mailako finalean, Beñat Zubizarreta eta Ekain Lizeaga gipuzkoarrak ikusgarri aritu ziren, azken hau bereziki, eta 22 eta 11 irabazi zieten De la Fuente nafarrari eta Loza errioxarrari.

Beunza eta Ordoñez, berriz txapeldun Uharten

MENDI LASTERKETAK Izaskun Beunza hirugarren emakumea izan zen Km Bertikalean, eta gizonezkoetan lehen sakandarra Aritz Munarriz izan zen. Aimar Araña, Jose Luis Beraza, Kepa Gordo eta Sakana Bizirik Nafarroako Txapelketako podiumera igo ziren

Maidar Betelu Ganboa SAKANA

Igandea ateri esnatu zen, lainotsu baino ateri. Uharte Arakil Beriain Kilometro Bertikala jokatu bitartean, bederen, ez zuen euririk egin. Beroa eta hezetasuna, bai ordea, korrikalariak maldan gora ederki sufritu behar izan zuten. Eta Beriain puntan, haizea eta lainoa. 190 korrikalari zeuden izena emanda, baina 166 izan ziren, azkenean, irteera hartu zutenak. Horietatik 165 sailkatu ziren.

Beriain puntaraino 5 km malkartsu zituzten aurretik, 1.023 m desnibel positiboarekin. Mikel Beunza, Walter Becerra, Maria Ordoñez eta Inma Pereiro zeuden faboritoen artean, eta kinielek ez zuten huts egin. Baina beti dago sorpresaren bat, eta kasu honetan ezusteko ederra izan zen, Izaskun Beunza olaztiarra onenen taldean sartu baitzen.

Txurregiko Mikel Beunza (44:20) eta Maria Ordoñez (52:33) izan ziren Beriain igotzen azkarrenak. Biek duela bi urte lortutako garaipena berretsi zuten, joan zen urtean Loic Robert eta Oihana Azkorbebeitia gailendu baitzizkizkien. Baina aurten berriro aginte makila hartu zuten, eta proba, aldi berean, Nafarroako Km Bertikalen Txapelketa zenez, Beunza eta Ordoñez dira Nafarroako Km Bertikalen 2023ko txapeldunak.

Aurreneko postuetan lehia itzela egon zen. Alkotzeko Mikel Beunza espezialista beteranoaren atzetik –azken lau edizioetan ez da podiumetik jaitsi eta bere bigarren garaipena lortu zuen igandean–, lasterketa malkartsuetan ere espezialista den Oier Zubeldia amezketarra bigarren sailkatu zen, 16 segundora (44:36). Walther Becerra sekaotarrak Zubeldiak baino segundo bat gehiago behar izan zuen (44:37). Podium estua, beraz. Sakandarren artean Aritz Munarriz izan zen lehena, sailkapen orokorrean



Itziar Retegi uharte arakildarra Beriaineran bidean, irribarra galdu gabe.

Sakandarrak

Km Bertikala, absolutua:

Gizonak

1. Mikel Beunza	44:20
9. Aritz Munarriz	47:18
11. Eukeni Goikoetxea	48:26
15. Ekhi Congil	50:07
32. J. Luis Beraza	53:01
48. Jesus Goena	55:57
60. Oihan Gorriti	57:29
75. Aimar Araña	59:45
76. Carlos Mañeru	59:51
79. Andoni Goikoetxea	1:00:02
86. Kepa Gordo	1:00:55
99. Igor Maiza	1:02:27
101. Txema Urroz	1:02:38
104. Fran Araña	1:03:30
117. Asier Leitza	1:05:48
147. Mikel Etxarri	1:11:58
152. Jorge Vitoria	1:14:41

Emakumeak

29. Maria Ordoñez	52:33
55. Izaskun Beunza	57:03
81. Maite Beregaña	1:00:19
122. Maria Risko	1:06:30
156. Itziar Retegi	1:16:11

KORRIKALARIAK BEROAZ KEXATU ZIREN. BERIAIN PUNTAN, ALDIZ, HAIZEAZ ETA LAINOAZ

bederatzigarren (47:18). Bere hamabigarren parte hartzea zuen etxarriarrak, eta sasoiari eutsita, Top 10ean sartu zen.

Izaskun Beunzaren podiuma

Emakumezkoetan, Izaskun Beunza lehian ikustea ezustekoa izan zen, olaztiarra azken aldian asfaltoan eta pistan ibili baita buru-belarri. Joan zen urtean Olatzagutia-Urbasa herriko lasterketa lehen aldiz irabazi eta gero, badirudi irailaren 30ean jokatu den Olatzagutia-Urbasa proba prestatzeko lehiatu zela Beriaingo Km Bertikalean. Eta nola, gainera. Maria Ordoñez txapeldunaren (52:33) eta Inma Pereiro beteranoaren (56:43) atzetik sailkatu baitzen olaztiarra, hirugarren (57:03), maila oso onean. Esker onez jaso zituen sariak.

Lehenengo uharte arakildarrak Jose Luis Beraza beteranoa, sailkapen absolutuan 32. (53:01), eta Maite Beregaña, emakumezkoetan zazpigarren (1:00:19) izan ziren, joan zen urtean bezala. Ez bata ez besteak, ez dute sasoi galtzen. Lehen herritarra izateaz gain, lasterketako hirugarren beteranoa ere izan zen Jose Luis Beraza.



Munarriz eta Beunza, Uharte Arakil Beriain Km Bertikaleko lehen sakandarrak.



Sakana Bizirik taldea, eskuinean, Nafarroako Km Bertikalen hirugarren taldea.

Gureak Nafarroako Txapelketan

Euripean eta haize boladek plazako toldoa astintzen zuten bitartean egin zen sari emate bi-koitza, Uharte Arakil Km Bertikala bera, eta Nafarroako Km Bertikalen Txapelketa.

Nafarroako Bertikalen Txapelketan Mikel Beunza eta Maria Ordoñez izan ziren txapeldun handiak, baina sakandarrak ere podiumera igo ziren. Promesen mailan Aimar Araña etxarriarra hirugarren izan zen (59:45); beteranoen mailan Jose Luis Beraza bigarren (53:01); eta beterano 2 mailan Kepa Gordo bigarren (1:00:55). Azkenik, taldekako sailkapenean, Sakana Bizirik hirugarren sailkatu zen, Hiru Herriren eta Txurregiren atzetik.

Korrikalariak gustura zeuden bukaerako auzate oparoan. Beroak, hezetasunak eta goiko haizeak berez gogorra den lasterketa gehiago gogortu zuten, baina gehienak egindakoarekin koforme zeuden. Guztiek antolakuntzarendako hitz ederrak izan zituzten, boluntarioek primeran lan egin baitzuten. Plazako pantailan *streaming* bidez korrikalarien Beriaingo azken metroak zuzenean jarraitu ahal

Olazti eta Etxari, azken egunak

Datorren asteburuan bi mendi lasterketa jokatu dira. Irailaren 30ean, larunbata, XV. Olatzagutia-Urbasa antolatuta du Sutegik 10:00etan, ibilbide berriarekin (17,2 km, 920 m desnibel+). Izena ematea zabalik dago irailaren 26ra arte, RockTheSporten. Urriaren 1ean 48. Mendira Joan Etorria prestatu du Udaberrik Etxari Aranaten, 11:00etan. Bargara, Maiatzara igo eta jaistea da erronka (10 km, 557 m desnibel+). Izena ematea zabalik dago irailaren 30era arte Kronoak webgunean.

izan ziren. Bertan zeuden ikusle gehienak, baina ez zegoen aurreko urteetan bezalako jendetzarik, "eguraldia ez zegoelako tontakerietarako. Goian haizeak jotzen zuten, ez zegoen giro" entzuten zen hizketaldietan.

Maidar Betelu Ganboa HIRIBERRI
Imanol Erbiti Ollo (Hiriberri, 1983-11-15) oso ezaguna da profesional mailako tropelean. 39 urterekin, profesionaletan bere 39. denboraldia osatzen ari da, guztiak talde berean, Eusebio Unzuereen esanetara. Talde gizon preziatua da, profesional handia. Frantziako hamahiru Tour, Espainiako hamabost Vuelta eta Giro bat ditu. Horretaz gain, 2016ko Rioko Olinpiar Jokoetan parte hartu zuen. Munduko zortzi txapelketatan lehiatu da eta Europako bi txapelketetan, igandean hiru izango direnak. Vueltan bi etapa garaipen ditu, 2008an eta 2010ean, eta galtzadarrien klasiko handietako maitalea da. Vuelta bukatu berri, igandean Brenthen (Herbehereak) jokatu diren Europako Txapelketetan Ivan Cortina taldekidea lagunduko du. Oraindik ez du erabaki heldu den urtean lezikletan jarraituko duen ala ez, baina sasoi, behintzat, nahikoa eta soberan du.

2023ko denboraldiari jarraikortasuna eskatzen zenion, 2022a baino urte lasaigoa izatea, ez horren gorabeheratsua. Bete al da?

Lesio bat izan nuen alergien saioiarekin batera eta geldirik egotea egokitu zitzaidan. Kirolean beti gerta daiteke zerbait. Hala ere, aurtengo denboraldia lasaigoa izan da, eta alde horretatik pozik nago.

Aurten ez zinen Tourrean aritu. Hamahiru ediziotan parte hartu eta gero, arraroa egingo zitzazun.

Ez zitzaidan berezia egin, egoeratik. Udaberrian lesioa izan nuen, eta banekien ez nintzela Tourrera ongi iritsiko. Horretaz gain, ez da erraza Tourraren taldean sartzea, taldekide asko baikara. Tourrera talde ona eraman genuen, baina ez genuen zortea alde izan, lehen etapan Enric Mas liderra galdu genuelako.

Valverderen konfiantzazko talde gizona zinen, eta murtziarra iaz erretiratu zenetik sakrifikatutakotako bat zarela diote adituek. Edo unean uneko erabakiak dira eta aurrekoak ez du eraginik?

Azkenean denak eragiten du, baina normala da. Valverderekin asko lan egin dut bera urte luzez taldeko lider izan zelako, baina oso gustura egin dut lana Nairo Quintanarendako, Mikel Landarendako, Richard Carapazendako, Oscar Pereiroendako... unean unekoa. Bestalde, geroz eta urte

"Oraindik ez dakit datorren urtean aktibo jarraituko dudan"

IMANOL ERBITI OLLO MOVISTAR TEAM TALDEKO TXIRRINDULARIA

TXIRRINDULARITZA Vuelta bukatu berri, igandean Europako Txapelketetan lehiatuko da Hiriberrikoa, 39 urterekin, bere ibilbide profesionaleko hemeretzigarren denboraldian



Imanol Erbiti saso bikainean jarraitzen duela erakutsi du berriz. GETTY IMAGES

gehiago ditugunez, normala da itzuli handi batzuetan ez sartzea. Kirola horrela da, eta logikoa da. Tourreko taldea horrela suertatu zen, baina, hala ere, ez nintzateke ongi iritsiko.

Tourreko lehen hiru etapak Euskal Herrian jokatu ziren. Ez al zenuen inbidiarik?

Bai ba. Etapak ikustera hurbildu nintzen, Movistar Team gure taldeak zenbait ekitaldi antolatu zituelako. Lourdes Oiarbide, ni neu eta beste txirrindulari batzuk hurbildu ginen, eta lanpetutako egunak izan ziren. Alejandro Valverde ere hurbildu zen. Tourra telebistan jarraitu nuen; Tourraren intentsitatea handia da, eta telebistak ere transmititzen du.

Euskal Herriko hiru etapak sekulakoak izan ziren, ibilbidea, paisaia eta batez ere zaleengatik. Txirrindularien artean ere halako irudipena al zegoen?

Bai, etapak espektakulu hutsa izan ziren, oso lehiatuak. Aurtengoa Tour hasiera gogorragoa izan zen, eta faboritoak lehen egunetik oso serio aritu ziren. **Politagoa da Tourra lehen egunetik etapa gogorrekin hastea, ohikoak**

"JUMBOKOENA APARTEKOA IZAN DA; VUETAKO TROPELEAN EZ ZEGOEN HAIEI MIN EGITEKO AHALMENIK"

diren esprinterrendako etapak izan beharrean?

Beno, bakoitzak berea du. Hau kirola da, ez dago araudi bat guztia ongi eta polita aterako zaizula ziurtatuko duenik. Unean uneko baldintzen arabera da. Datorren urtean irteera berbera jarriko balute ere, ezberdina litzateke, faktore ezberdinengatik: klima edo dena delakoa. Baina, egia esan, Tourreko lehen hiru etapak ikusgarriak izan ziren.

VUELTAZ

19 urte dituzu profesionaletan, ez dakit Jumbo-Vismak Vueltan izan duen erabateko nagusitasuna inoiz ikusi ahal izan duzun. Hiru taldekide podiumean: Kuss talde gizona irabazle, Vingegaard eta Roglic liderren aurretik.

Hau apartekoa izan da. Behin gertatu dena. Halako botere ahalmenik eta erakustaldirik ez dut sekula ikusi. Podiumaren hiru postuak bereganatzea, talde guztiak lasterketan izan duen aparteko maila goreneko nagusitasun hori... Aitortu beharra dago: Jumbo tropel guztia baino nagusiago izan da.

Jumboren nagusitasuna horrenbestekoa izango zela espero al zenuen?

Ez. Lasterketaren baldintza guztiek ere eragina izan dutela uste dut: Evenepoelek gaizki pasatu zuen eguna, Kuss garaiz iritsi zen ihesaldia... Baina Jumbokoak oso sendo aritu dira, talde gizonak ere oso indartsu. Ez zegoen manibra tarterik. Beno, tarteren bat egongo zen, baina tropelean ez zegoen Jumbokoei mina egiteko ahalmenik.

Vueltan seigarren sailkatu den Enric Mas liderrarendako egin duzu lan. Taldearen zein balorazio egiten duzu? Zure burua ongi ikusi al duzu?

Talde gisa etapa garaipenen bat lortzea eta podiuma borrokatzea joan ginen Vueltara. Beraz, aitortu beharra dago ez garela espero bezala aritu. Zaila izan da. Ongi lan egin dugu eta borrokatu dugu, baina besteak gu baino hobek izan dira. Egia esan, laugarren postutik behar-rako borrokan aritu gara, eta argi dago hori ez dela genuen helburua. Ulertu eta barneratu beharra dago, gerora hobetzeko. Bestalde, ni egindako lanarekin eta emandako mailarekin oso pozik nago. Uste dut taldeari gauza onak eman dizkiodala. Jumbokoei min handiagoa egin nahi genien, baina ezinezkoa

izan da. Duen guztia ematen duenari eta borrokatzen duenari ezin dakioket gehiago eskatu, eta uste dut gure taldeak ahal duen guztia eman duela. Lehiakideak garen aldetik, garaipenak nahi ditugu. Baina hau kirola da, batzuetan gaintzen zaituzte, eta eurak txalotzea, hori da dagoena. Aurretik garaipenak eta une zoragarriak bizitzeko aukera izan dugu, eta une eder horiek atzera ere bizi nahi ditugu.

Zein ongi-etorri beroa egin zizuten Hiriberrikoek: pankarta erraldoia, musika, kantuak, dantzak, animoak...

Bai, ikuskizun hutsa izan zen. Festak ziren, giroa ederra zen, eta guztia batu zen. Hunkigarria izan zen, eta polita. Banekien zerbait prestatzen ari zirela, baina halako pankarta puska ikusterakoan haluzinatuta geratu nintzen. Erraldoia zen.

Zeinen politikak izan ziren Vueltako Nafarroako bi etapak.

Zalantzarik gabe. Iruñeko irteera guztietan politena izan zen, Larra-Belaguako etapa zoragarria, eta Lekunberrin bukatu zena oso hunkigarria eta hasieratik oso lehiatua. Egun horretan ihesaldirako borroka itzela izan zen.

Iruñeko irteera aipatu duzu. Juan Mari Guajardo speaker altsasuarrak aurkezpen berezia egin zizun. Zer nolako loreak!

(Kar, kar)... Juan Mari, alproja galanta! Oso ongi maneiatzen du guztia.

EUROPAKO TXAPELKETETARA

Asteburuan Drenthen (Herbehereak) jokatuko diren Europako Txapelketetan parte hartuko duzu. Pascual Momparler selekzioko hautatzaileak prestatutako zortzikotean hautatua izatea espero al zenuen?

Egia esaten badizut, ez nuen Europako Txapelketetan pentsatu ere egin. Normalean data hauetan

Munduko Txapelketak jokatzen ziren, baina aurtien Tourraren eta Vueltaren artean egin zizuten. Vueltan murgilduta, ez nintzen Europako txapelketaz gogoratu ere egin. Ivan Cortinaren taldekidea naizenez, pentsatzen dut Pascualek pentsatu duela ideia ona izan zitekeela ni hautatzea, Cortina ezagutzen dudalako eta badakidalako nola lagundu ahal diodan. Dena den, halako deialdiek beti ilusioa pizten dute. "Oraindik nitaz gogoratzen dira" esaten diozu zure buruari.

Zure hirugarren Europako Txapelketak izango dira. la 200 kilometroko etapa da igandekoa, hasieran nahiko laua baina tartean aldapa eta maldak dituenak.

Zirkuitu bat da, tartean maldak batzuk dituena. Partaidetza ikusi baino lehen ez naiz ausartzen faboritoez hitz egiten, zirkuitua probatu beharra dago ikusteko nolakoa den, gogortasunaren arabera faboritoez zakuan batzuk edo besteak sartzeko.

Vuelta bukatu berri, nola prestatuko zara Europako Txapelketetarako?

Vueltaz errekuuperatzea, ez dago besterik. Hankak pixka bat mugitu, izerdi pixka bat egin, eta gutxika gorputza errekuuperatzen joan dadila. Ez dago besterik.

Europako Txapelketetan beste sakandar batek parte hartuko du, Igor Arrietak, 23 urtez azpiko mailan. Txikitatik ezagutzen duzu, aita, Jose Luis, urte luzez zuzendari izan zenuelako. 2024an UAE taldearekin lehiatuko da. Nola ikusten duzu?

Oso ongi ikusten dut. Promesa oso ona da, eta banago ibilbide luzeak izango dela. Txirrindularitza dohain oso onak ditu. Zortea bidelagun izan dezala, badakidalako lana eta dedikazioa jarriko dituela. Etorkizun handia du aurretik. Lasaitasunarekin eta pausoz pauso, disfruta deza-



Imanol Erbiti, Iruñeko etapa abiatu baino lehen zaleen txaloak jasotzen. GETTY IMAGES

la. Uste dut gauza oso politikak egingo dituela, ezaugarri oso onak dituelako. Txirrindulari gisa gustuko dut.

Berarekin eta bestelako txirrindulariekin Sakanan badugu erreleboa. Gure bailarak, horren txikia izateko, txirrindulari eta kirol zuzendari handiak eman ditu. Ez da ohikoa.

Bai, hala da. Uste dut hau dugun zaletasunagatik dela. Eta zerbaiten hautua egiten dugunean, konpromisoz hartzen dugulako. Horrek asko egiten du.

DATORRENAN

Aurtengoa profesional mailan zure hemeretzigarren denboraldia da. 2024. urtean hogeigarren denboraldia izango duzu?

Oraindik ezin dizut erantzun, ez dakidalako. Guztia airean dago, eta oraindik ez dut erabakirik hartu. Argi dudana da proiekturen batek benetan ilusioa pizten badit, aurrera egingo dudala; bestela, lasaitasuna.

Beti esan izan duzu zure nahia txirrindularitza disfrutatzea eta da-

gokizun liderrari laguntzea dela. Talde gizon ona izatea, eta lasaitasuna eta konfiantza transmititzea, bereziki taldekide gazteenei. Denboraldi honetan ere lortu al duzu?

Hala sentitzen dut. Egindakoa rekin pozik nago; lagundu dudala sentitzen dut. Ez dakit kanpotik nola ikusiko den, baina Australian hasi genuen denboraldia eta Gorka Izagirre lehen hamar postuetan sailkatzea lortu genuen, batere erraza ez zena. Ondoren, Omanen etapa eta sailkapen orokorra irabazi genuen Matteo Jorgensonekin. Paris-Nizara Matteorekin joan ginen. Sekulako maila zegoen, Pogacar eta Vingegaard tarteko, baina Matteo lehen hamarretan sailkatzea lortu genuen. Ez zen erraza izan.

"GORKA IZAGIRRE EZINBESTEKOETAKO BAT DA, ETA IGOR ARRIETAK ETORKIZUN HANDIA DU AURRETIK"

Lesioagatik denbora bat lehiatu gabe egon nintzen, baina errepi-dera itzuli bezain pronto Boucles de la Mayennen etapa eta sailkapen orokorra irabazi genuen Oier Lazkanorekin. Berehala, Espainiako Txapelketa irabazi genuen, Oierrekin, eta Tour de Limousinen borrokan egon ginen, eta Polonian Gaviriarekin esprinten lehiari sartu ginen. Esan nahi dut, uneoro borrokan egon gara, txirrindularitza esaten den bezala "pomadan sartuta" egon gara, helburu politengatik borrokan. Batzuk lortu ditugu, eta beste batzuk ez. Vueltan egindako lanarekin kontentu nago, baina Jumbokoak nagusi izan dira. Badirudi beraien ondoren ez dugula ezer egin, baina ahaleginak egin ditugu.

Gorka Izagirre taldekidea nola ikusi duzu?

Geroz eta gehiago taldearendako lan egiten du, eta tarte gutxiago eskaintzen die bere aukera pertsonalei, baina balio handia du: lasterketa primeran irakurtzen daki, ongi mugitzen daki, badaki zailtasunak noiz iritsiko diren eta haiei aurreratzen da. Niretako ezinbestekoetako bat da Gorka, zalantzarik gabe.

Europako Txapelketen ondoren lanean jarraituko duzu?

Italian Klasiko batzuk jokatuko dira eta uste dut batean batean aritu naizela, Vueltatik geroz inertzia horrekin ongi iristen garelako denboraldi bukaerako probetara.

Eta ondoren, atsedena. Gertukoekin lasai egoteko gogoia izango duzu.

Bai, seme-alabekin egon, lagunekin bildu... hainbat bazkari ditut pendiente. Dena den, txirrindulariak aktibo gaudenean gelditzeko gogoia dugu, eta geldirik gaudenean berriro hasteko gogoia. Halakoak gara.

TXIRRINDULARITZA

Afizionatuen denboraldiari agur

Afizionatuen mailako denboraldia despeditu da. Asteburuan Lehendakari Txapelketarako baliaigarriak ziren azken bi lasterketak jokatu ziren, 94. Altsasu Proba eta eta Oñati Proba.

Lasterketa guztiak kontuan hartuta, Laboral Kutxako Ander Ganzabalek irabazi du Lehendakari Txapelketa (149 puntu) eta bere taldekide Ailetz Lasa zior-

diarra bosgarren izan da (73 puntu), irailaren 8an Urdulizen irabazitako lasterketari eta gaintzekoetan egindako lanari esker.

Txirrindulari sakandarrak denboraldiari agur esan diote euren sare sozialetan argitaratutako mezuetan. Iker Mintegi Euskaltel Euskadin profesional izango da datorren denboraldian, Jorge Azanza zuzendari altsasuarraren esanetara. Gaintzeko afizionatuek zer egingo duten, aurki jakingo da.

Iker Mintegiri aitortza Altsasun

Ostiralean 94. Altsasuko Proba jokatu zen. Iker Mintegi (Laboral Kutxa) altsasuarrak irabazteko ilusioa zuen, baina ez zen posible izan, azken esprintean Rural Kutxa-Alea talde sakandarreko Guillermo Silva gailendu baitzen. Mintegi laugarren izan zen, mendiko eta taldekako txapelketa irabazi zuten, eta herritarren omenaldi beroa jaso zuen.





Fundazioaren torneetako bat. OSASUNA F.

FUTBOLA "Nik Osasunan jokatzeko dut" Sakanara iritsi da

2017 urtetik Osasuna Fundazioak desgaitasuna duten neska-mutilendako "Nik Osasunan jokatzeko dut" futbol eskola kudeatzen du Taxoaren, gaztetxo hauek kirol jardueretan integratu daitezzen. Astero entrenamenduak dituzte, bestelako ekitaldiekin batera, maiatzean egiten duten eskola guztien arteko topaketa barne. Gutxika eskola horiek hedatu dira, eta aurten horietako bat Lakuntzan eskainiko du Osasuna Fundazioak, desgaitasuna duten bailarako neska-mutilek futboleko baloreekin goza dezaten. Izena ematea zabalik dago Osasuna Fundazioaren webgunean. Bestela, interesatuek 616235047 telefonoan jaso dezakete beharrezko informazioa.

FUTBOLA Etxarrik eta Lagunek gogotsu ekin diote Erregionalari

Erregional mailan, Lagun Arteak Kirol Sport hartu zuen Zelai Berrin, eta Gorka Hernandezek sartutako bi golei esker 2 eta 0 gailendu zen. Etxarri eta Barañain B taldeak gogoz saiatu ziren, baina euren arteko lehia husnako berdinketarekin despeditu zen. Larunbatean Lagun Arteak Beti Kozkorren kontra jokatu du Lekunberrin, 16:00etan, eta Etxarrik igandean Zizur izango du aurkari, 16:00etan, El Pinarren.

Preferente mailan, Altsasuk Ziraukiren kontra jokatu beharrekiko partida urriaren 4ra atzeratu da. Larunbatean Altsasuk Gazte Berriak hartuko du, 16:30ean, Dantzalekun.

EHko Erdigunera, mendeurrena buruan

MENDIA Aurten urriaren 1ean izango da Beriainen dagoen Euskal Herriko Erdigunera egiten den martxa, bertan oroigarria jarri zeneko 20. urteurrenean. Federación Vasco Navarra de Alpinismoren mendeurrena izango da gogoan

Maidar Betelu Ganboa IRAÑETA

Mendizaleek ospakizun handiak dituzte gertu. Batetik, euskal lurraldetasunaren aldarria egiteko antolatzen duten Euskal Herriko Erdigunera Ibilaldia urriaren 1ean izango da, eta, bestetik, 2024ko maiatzaren 18an 100 urte beteko dira Elgetan Federación Vasco Navarra de Alpinismo (FVNA) sortu zela. FVNA 63 urtez Euskal Herriko mendizale guztien federazio bakarra izan zen, baina Autonomia Estatuaren sorrerarekin federazioak autonomiara antolatu zituzten, eta hor sortu ziren Nafarroako Mendi eta Eskalada Federazioa eta Euskal Mendi Federazioa (EMF). Bi federazioek elkarlanean egitarau zabal eta garrantzitsua antolatu dute 2024an mendeurrena behar bezala ospatzeko.

Bi gaiak hizpide izan ziren urriaren leko Euskal Herriko Erdigunera Ibilaldia aurkezteko Irañetan antolatutako pre-



Ezkerretik hasita, Goldarazena, Biurrun eta Montañes. Atzean, Ruiz, Beraza eta Arangoa.

tsurrekoan. Nafarroako Mendi Federazioako Martin Montañes presidentea, Karmele Biurrun presidentea ordea, Iratxoko Mikel Goldarazena, Sakanako Mendizaleak taldeko Peio Ruiz presidentea, Iñaki Arangoa

Irañetako alkatea eta Floren Beraza, "ibilbideko sukaldaria" izan ziren bertan. Aipatu elkarrekin, Euskal Mendi Federazioak, Gure Eskuk eta Nafarroa Berriz Altxa taldeek antolatu dute martxa.

"100 urte ez dira egunero betetzen. Gogoz ospatuko dugu"

MARTIN MONTAÑES ALSASUA NAFARROAKO MENDI ETA ESKALADA FEDERAZIOKO PRESIDENTEA

Federación Vasco Navarra de Alpinismok (FVNA) 100 urte beteko ditu 2024an.

Ospakizun handiak datoz?

Jakina, horretan gaude elkarlanean Nafarroako Mendi eta Eskalada Federazioa eta Euskal Mendi Federazioa. Egitarau zabal prestatu dugu. Egunero ez dira 100 urte betetzen, eta gogotsu ospatu nahi dugu. 33 urtez federazio bakarrean egon ginen, Autonomia Estatuarekin banatu gintuzten, baina gu harremanetan egon gara beti.

Denetarik antolatu duzue: erakusketak, Euskal Herriko mendietara igoerak, Elgetako ekitaldia eta festa...

Ilbeltzaren 15ean "Emakumeak eta mendia" erakusketa ibiltaria aurkeztuko dugu Iruñean.

Martxoan Korrikak Euskal Herria zeharkatuko du, eta urteurrenaren presentzia izatea nahiko genuke. Martxoaren 16an Euskal Herriko 7 lurraldeetako mendi altuenetara igoko gara, eta apirilaren 27an eta 28an Ehun Mendi egitasmoarekin Euskal Herriko 100 menditara igoko gara. Klub bakoitzak igoera baten ardura hartu du. Bestalde, maiatzaren 18an, urteurrenaren egunean, ekitaldi instituzionala egingo dugu Elgetan. Iñigo Urkullu eta Maria Chivite gonbidatuko ditugu. Mendizaleen festa handia prestatu dugu, herrikoia: herri



bazkari erraldoia, dantza, musika... Maiatzean ere Belaguako Zeharkaldi Handia egingo dugu. Eta oraindik ez dugu zehaztu noiz, baina Txumarra zenak ilusio handia zuen

Erdiguneko monolitoak 20 urte Euskal Herriko Erdigunea Beriainen dago, San Donato base-lizatik gertu, Olibesarioko Sarroian. Hala zehaztu zuen Felix Isasa ingeniariak, barizentroaren kontzeptuan oinarrituta. 2004an oroigarri bat jarri zen han, "beraz, aurten 20. urteurrena izango da. Leku oso polita da, enblematikoa. Toki sinbologiko gisa garrantzi handia ari da hartzen".

Urriaren 1ean bi adar aterako dira Erdigunerantz, Senosiaingoa 8:45ean eta Irañetako 9:30ean, Irañetako Basokoetxea bordatik. 11:30erako ekitaldia iragarri dute. "Egun honek Euskal Herri osoko mendizaleen elkargune bat izan nahi du, batasun festa bat. Probintzia guztietako mendizaleak elkartuko gara". Gero bazkaria izango da Irañetako bordan, "Lakuntzako baba txikiak". Bazkarirako irailaren 29 baino lehen eman behar da izena (620 190 277).

Bost ibilbide Erdigunera

Euskal Herriko Erdigunera helteko seinaleztatutako bost ibilbide prestatu ditu Nafarroako Mendi Federazioak, Irañetatik, Ihabartik, Senosiaindik, Ollotik eta Unanutik. Ibilbideak markatzeaz gain, informazio panelak eta QR-ak jarriko dira. "Udalekin eta Gobernuarekin harremanetan gaude. 2024ko martxorako ibilbideak martxan egotea nahi-ko genuke. Bide onean goaz".

beteranoen martxa antolatzeko, eta egingo dugu, haurren martxa batekin batera.

EMMOA Museoa mustuko duzue.

Tolosako Arkaute txaletak hartuko du EMMOaren (Euskal Mendizaleen Museoa) erakusketa iraunkorra. Euskal mendizaleen historia jasotzeko mendi material ugari bildu dituzte, ikusgarriak direnak: lehendabiziko pioletak, Everesteko lehen espedizio materialak...

EH Erdigunera ibilbidea ere ospakizunetan sartuko duzue.

Noski! 2024an urriaren 8an izango da, eta urriaren 18an Euskal Mendizale Gala, Galdakaon. Mendeurrenako ekitaldi guztien irudiekin Labritek dokumentala egingo du. Bilboko Mendi Festibalean aurkeztea da asmoa.



Nafarroako Bertsolari Txapelketaren aurkezpena. NAFARROAKO BERTSOZALE ELKARTEA

24 bertsolari eta txapel bat

Urriaren 7an hasiko da Nafarroako Bertsolari Txapelketa, eta abenduaren 2an izanen da finala Iruñeko Anaitasuna kiroldegian. Idoia Granizo, Ekain Alegre, Eneko Lazkoz eta Saats Karasatorre bertsolari sakandarrek parte hartuko dute

SAKANA

Irailaren 16an aurkeztu zuten 2023ko Nafarroako Bertsolari Txapelketa Atarrabiako kultur etxean. Bertso txapelketaren 46. edizioa izanen da. Nafarroako Bertsozale Elkartek azaldu duenez, aurrekoa, 2021koa, "ziurgabetasun erabatekoan" egin zuten, pandemiaren erdian, bertso plaza "moteldua" zegoela "eta kultura arriskuan". "Egun, zorionez, bertso plaza berreskuratzen doala esan dezakegu, eta kulturak, mehatxuak mehatxu, gizartearentzat duen balio ezinbestekoa erakutsi du". Txapelketa urriaren 7an, Iruritan, hasiko da eta abenduaren 2ra arte lau finalurreko izanen dira, hiru finalurreko eta finala. Tartean Altsasuko Iortia kultur gunean azaroaren 4an finalurreko bat jokatu da. Saiotarako sarrerak bertsozale.eus-en erosi daitezke.

29 bertsolarik eman dute izena aurtengo Nafarroako Bertsolari Txapelketan, eta aurrekanporaketak igarota, 24 izanen dira Iruritan abiatuko den ibilbidean. Lau bertsolari sakandarrek parte hartuko dute aurtengo txapelketan: Idoia Granizo Uribarrena eta Ekain Alegre Gil altsasuarrak eta Eneko Lazkoz Martinez eta Saats Karasatorre Martinez etxarriarrak. Bi bertsolari altsasuarrak Iruritako Gizarte Bilgunean, urriaren 7an, 17:30ean, ariko dira eta etxarriarrak urriaren 21ean, 17:30ean, Leitzako Herri Aretoan. Bertso-

**AZAROAREN 4AN
BERTSOLARI
TXAPELKETAREN
FINALURREKO BAT
IZANEN DA ALTSASUN**

lariak ez ezik, Zigor Gartzia Arregi Zian arakildarra gai jartzailea izanen da urriaren 14ko Vianako saioan eta azaroaren 4ko Altsasukoan. Joseba Beltza Bengoetxea etxarriarra txapelketako epaile izanen da.

Finalaurdenak Irurita, Viana, Uharte eta Leitzan izanen dira, eta finalurrekoak Altsasun, Agoitzen eta Lesakan. Nafarroako Bertsolari Txapelketaren finala Iruñeko Anaitasuna kiroldegian izanen da. "Urteak joan urteak etorri, Nafarroako euskal kulturaren ekitaldi garrantzitsua bihurtu da Nafarroako Bertsolari Txapelketa". Bertsozale Elkartetik azaldu dutenez, "ez da bat-bateko lorea, urtean zehar egiten den lan isilaren fruitua baizik, eta bertsolaritza transmititzeko egingako lan eskerdaren ondorio zuzena".

Nafarroako Bertsolari Txapelketa

Finalaurdenak

Iruritako Gizarte Bilgunea, urriak 7, 17:30

Saioa Alkaiza, Eneko Fernandez, Sarai Robles, Idoia Granizo, Ekain Alegre eta Egoitz Gorosterrazu. Gai jartzailea: Maialen Belarra.

Vianako kultur etxea, urriak 14, 17:30

Julio Soto, Xabat Illarregi, Ekhiñe Zapiain, Patxi Castillo, Urko Gartzia eta Aitor Irastortza. Gai jartzailea: Zigor Gartzia 'Zian'.

Uharteko Arte Garaikideko Zentroa, urriak 15, 17:30

Joanes Illarregi, Xabier Silveira, Mikel Lasarte, Julen Zelaieta, Beñat Astiz eta Eki Mateorena. Gai jartzailea: Ainhoa Larretxea.

Leitzako Herri Aretoan, urriak 21, 17:30

Eneko Lazkoz, Josu Sanjurjo, Bittori Elizalde, Endika Legarra, Saats Karasatorre eta Fernando Ziganda. Gai jartzailea: Ander Aranburu.

Finalurrekoak

Altsasuko Iortia kultur gunea, azaroak 4, 17:30

Iruritako saioa irabazlea eta puntuazioz sailkatuak. Gai jartzailea: Zigor Gartzia 'Zian'.

Agoizko kultur etxea, azaroak 11, 17:30

Vianako irabazlea eta puntuazioz sailkatuak. Gai jartzailea: Maialen Belarra.

Lesakako kultur etxea, azaroak 19, 17:30

Uharte eta Leitzako irabazleak eta puntuazioz sailkatuak. Gai jartzailea: Alaitz Rekondo

Finala

Iruñeko Anaitasuna kiroldegia, abenduak 2, 17:00

Finalurreko irabazleak eta puntuazioz sailkatuak. Gai jartzaileak: Ainhoa Larretxea eta Ander Aranburu.

Egitura

Finalaurdenetako fasean 24 bertsolarik parte hartuko dute, sei saio bakoitzeko. Hemezortzi pasako dira finalurrekoetara: lau saioetako irabazleak eta puntuazioaren arabera hamalau. Finalurrekoetako hiru saioetatik zortzi bertsolari sailkatuko dira finalerako; saioetako hiru irabazleak eta puntuazioaren arabera lehen bostak. Finalean zortzi bertsolari lehiatuko dira.

Egin beharrekoak

Final-laurdenak: hamahiru bertso puntuagarri

Binaka, gaia emanda, hiruna bertso zortziko handian.

Binaka, gaia emanda, hiruna bertso zortziko txikian.

Binaka, gaia emanda, hiruna bertso hamarrekotik txikian.

Ganbara: Banaka, gaia eta lehen puntua emanda, bi bertso zortziko txikian eta banaka, gaia emanda, bi bertso.

Finalurrekoak: hamabost bertso puntuagarri

Binaka, gaia emanda, hiruna bertso zortziko handian.

Binaka, gaia emanda, hiruna bertso zortziko txikian.

Binaka, gaia emanda, hiruna bertso hamarrekotik txikian.

Binaka, gaia emanda, zortziko txikian puntutan, zortzi bertso.

Ganbara: Banaka, gaia emanda, hiru bertso.

Finala: hamabost bertso puntuagarri

Binaka, gaia emanda, hiruna bertso zortziko handian.

Binaka, gaia emanda, hiruna bertso zortziko txikian.

Banaka, gaia eta lehen puntua emanda, hiru bertso zortziko txikian.

Binaka, gaia emanda, hiruna bertso hamarrekotik txikian.

Banaka, gaia emanda, hiru bertso.

Buruz burukoa: bederatzi bertso puntuagarri

Binaka, gai emanda, zortziko txikian puntutan, zortzi bertso.

Binaka, gaia emanda, hiruna bertso sei puntuko motzean.

Ganbara: Banaka, gaia emanda, hiru bertso.

Musikarekin esperimentatzen

Ganibet Ekain Alegre Gil eta Amaiur Goikoetxea Flores altsasuarren musika proiektua da. Musika elektronikoarekin eta autotunearekin "probatzen" hasi ziren, eta dagoeneko zenbait abesti propio sortu dituzte. Irailaren 30ean Olaztin egonen dira

Erkuden Ruiz Barroso ALTSASU
Ekain Alegre Gil eta Amaiur Goikoetxea Flores Elektrokela Elektrotxarangako kideak dira. Goikoetxea abeslaria da eta Alegre gitarra jolea. Alegre ere eus-

kal abestien bertsio elektronikoak edo remix-ak egiten hasi zen eta ordenagailuarekin musika egiten esperimentatzen ari zela, AutoTune ahotsak distorsionatzeko erabiltzen den programa deskar-

gatu zuen. "Entsegu batean aipatu nuen AutoTunea deskargatu nuela eta probatu nahi nuela, eta beste egun batean taldekideei abesti bat bidali nien haien balorazioa jakin nahi nuelako, eta Amaiurrek esan zidan oso ongi zegoela, baina ea noiz grabatuko genuen AutoTunea". Bi musikariak proiektuari buruz hitz egiteko geratu ziren: "Serio hartzeko eta dena finkatzeko abiapuntua jarri genuen. Zerbait egiten bagenuen ongi egin behar genuen". Ganibet proiektua sortu zuten. "Berez ez da talde bat musika egiten duen bikote bat garelako. Gauzak probatzen eta esperimentu bezala hasi ginen". Goikoetxeak gaineratu duenez, "ez genekien nora joango zen, baina gutxienez gu egindako lanarekin gustura gelditzeko".


Elektronika

Ganibet-ek musika pop elektronikoa egiten duela esan daiteke. "Elektroniko hau ez da hain diskotekeroa edo, behintzat, saiatzen gara gauza desberdinak egiten eta ez bakarrik bonboa, kajak eta sinteak. Anitzagoa da. Ez da elektronikoa purua, nolabait esateko", azaldu du Alegre. Ez da 1990ko eta 2000ko bakalaua. "Pop dela esan daiteke".

Azken urteetan elektronikoak izan duen gorakadaren arrazoietako bat jendea "aspertuta" dagoela dela esan du Alegre: "Gaur egun kontzertu edo talde formatua zerbait zaharkituta bezala dagoela iruditzen zait". Eman duten kontzertuan "publiko nahiko anitza" zela aipatu du musikariak. "Bizi dugunaren erantzun bat da. Horregatik hartzen gaitu jendeak kontuan". Aldaketaren beste arrazoietako bat baliabideen aldaketa da, Goikoetxeak azaldu duenez: "Lehen gutxi gorabehe-




Amaiur Goikoetxea eta Ekain Alegre, Ganibet proiektuaren kideak. UTZITAKOIA



BAZTERRETIK

OIHANE AGIRRE ULAIAR

Esker ona militantziari



Eskerrak zaintzen duten,

eskerrak zaintzen dituzten.

Eskerrak zaintzen dudana,

eskerrak zaintzen nauten.

Eskerrak mundua aldatu nahi dugun

Dena irauli

Eta denon bizitzak bizigarri egin.

Eskerrak haiei, eta eskerrak guri

Eskerrak borrokari

ra bakarrik gitarra edo instrumentu bat jotzen zuenak egin zezakeen musika. Orain badaude beste hainbat gailu musika egiteko, eta horrek esperimentatzen laguntzen du".

Erramun Martikorenaren *Xorrieri* abestiaren bertsioa izan zen bikotearen aurkezpen abestia. Ondoren, Altxatu taldearen *Berriro* eta Skaiketaren *Ezpainetan odola* abestiak etorri ziren, eta publikatu duten azkena beraien lehenengo abestia da: *Korapilota*. Momentuz taldearen abesti bakarra da, baina pixkanaka gehiago sortzen joanen dira. Publikatzen duten abesti bakoitza bideo-kliparekin egiten dute. Urdiaino kontzertuan bederatzi abesti eskaini zituzten eta hurrengoetarako "hamabi edo hamahiru" eskaintzera iritsi nahi dute.

Abestiak sortzeko *brainstorming*-a egiten dutela azaldu du Alegre. "Bertsioen kasuan frogatzen joaten gara, originalari bueltak ematen". Ganibeten abestien kasuan "zer daukagu guk eskaintzeko" pentsatzen dute: "Zer uste dugu egiten dugula ongi; melodiak eta ahotsak". Esperimentatzen dute gero.

"Kanta baten egitura egitea ez da erraza, agian pentsatzen duzu errepikatzen ari zarela, jendea aspertuko dela beti gauza bera entzutean... Buruari buelta asko ematen diogu ere". Letrak "momentuz" Alegre sortu ditu: "Orain hasi behar gara pixka bat letraren kontua demokratizatzen". Biak ados ez badaude abestiak ez duela aurrera egiten gaineratu dute musikariek. Letra eta musika uztartzearen harira, biak aldi berean sortzen joaten direla azaldu dute: "Badakigu nondik jo, gero musika moldatzen joaten zara letraren arabera. Kasuaren arabera".

Duela zenbait hilabete hasi ziren proiektuarekin, eta momentuz kontzertu bakarra eman dute; abuztuaren, Urdiainen. Datorren astean, hilaren 30ean, larunbata, 23:30ean, Olaztiko gaztetxean egonen dira eta urria-

**"SAIATZEN GARA
GAUZA DESBERDINAK
EGITEN, ELEKTRONIKA
ANITZAGOA DA"
EKAIN ALEGRE**



ren 14an Txantrean. Burlatan eta Amurrión datak ixten ari dira ere. Goikoetxea: "Ez dugu gauza handirik behar"; ordenagailu bat, bi mikro "eta funtzionatzera". Alegre: "Fondoan baseak jartzen ditugu, Amaiurrek abesten du eta nik ahotsarekin zaratatxoak egiten ditut".

Gustura

"Orain arte bezala jarraitzea, gutxi gorabehera. Ez genekien zuzenkorik egingo ote genuen eta egin dugu zuzeneko bat. Ez genekien jendeak entzungo zuen, eta jendeak entzun du", esan du Alegrek espektatibez hitz egitean. Ganibeten helburua orain abesti berriak kaleratzea da, baita kontzertuak ateratzen joatea ere, "hor gabiltza", Goikoetxeak gaineratu duenez. "Gerta liteke jendea gutaz ahaztea, baina momentuz deitzen ari dira".

"ORAIN BADAUDE HAINBAT GAILU MUSIKA EGITEKO; LAGUNTZEN DU" AMAIUR GOIKOETXEA

Bi musikari gazteak Elektrokela Elektrotzarangako kideak dira, ikasten ari dira, Alegre Nafarroako Bertsolari Txapelketan hasiko da laster eta Goikoetxeak dantza klaseak ematen ditu, eta orain Ganibet proiektuan daude ere. "Nik uste dut dena gustura egiten dugula. Karga bada, baina karga arina nolabait esateko. Elektrotzarangarekin bezala; etxera izugarrizko palizarekin iristen gara, baina gero pentsatzen duguzen ongi pasa dugun. Berdin", esan du Goikoetxeak. Entseguak nahiko berandu egiten dituzte, eta hasieran "perez" ematen dien arren gero gustura "geratzen" direla aitortu du. Alegre: "Grabatu genuen azken abestia 1:00etan bukatu genuen".

Musikaren eta arte eszenikoen inguruan ibiltzen dira Ganibeteko musikariak, eta proiektu berrirako "tablak" izatea ona izan dela esan du Alegrek. "Elektrotzarangan jendaurrean abestu izanak Ganibetekin abestu genuenean lagundu zuen, egia esan. Nahiz eta kontzientzia ez izan bagaje bat badugu, eta pila bat laguntzen du".

APRENDE EUSKERA

Y PASA DE NIVEL MAILAZ IGO



IZENA EMAN MATRICÚLATE

2023-2024

DIRULAGUNTZAK: %80-%100

EUSKARA IKASTEKO/HOBETZEKO TALDEAK SAKANAN (AEK): GRUPOS PARA APRENDER EUSKERA EN SAKANANA :

ALTSASU	ETXARRI ARANATZ	IRURTZUN
Hasiera 9:00-11:40 (2,3,4)	Hasiera 9:30-12:30 (1,3)	Hasiera 17:00-20:00 (1,3)
Hasiera 17:00-19:00 (1,2,3,4)	Hasiera 17:00-20:00 (1,3)	Hasiera 9:30-12:30 (1,3)
A1 17:00-19:00 (1,2,3,4)	B2 15:00-17:00 (1,2,3,4)	A2 9:30-12:30 (2,4)
A2 18:00-20:00 (1,2,3,4)		B1 15:00-16:30 (1,2,3,4)
A2.2 19:00-21:00 (1,2,3)		B2 9:30-12:30 (2,4)
A2.2 9:00-11:40 (2,3,4)		
B1 9:00-11:40 (2,3,4)		
B1 17:30-20:10 (1,2,3)		
B1.2 9:20-12:00 (2,3,4)		
B2 19:00-21:00 (1,2,3,4)		
EGA 17:00-19:00 (1,2,4)		

C2 (eguna eta lekua zehaztu gabe) AUTOIKASKUNTZA (maila guztiak) MINTZAKIDE (dohainik)

Nahi zenukeen maila edo ordutegia zerrondan ez badago, galdetu Itsasi euskaltegian: **948 468 258**
Si el nivel o el horario deseado no está en la lista, pregunta en el euskaltegi Itsasi: **948 468 258**

Euskaltegi gehiago/más euskaltegi: www.eialde.eus

Dirulaguntza handiak (%80-%100): **Euskarabidea, Sakanako Mankomunitatea eta Udalak**

Informazio gehiago Sakanako Mankomunitateko Euskara Zerbitzuan: 948 464 840



"Irratian gu zubi lana egiten saiatzen gara"

Esan Erran irratiak abenduan 25 urte beteko ditu, baina urteurren ospakizunei larunbatean ekinen diote. Ultzama, Basaburua, Imotz, Odieta, Anue, Lantz eta Atetzi zerbitzu eskaintzen dion irrati esataria da Itziar Perez Argomaniz altsasuarra

Alfredo Alvaro Igoa ALTSASU

1 Zergatik da beharrezkoa Esan Erran?

Euskalduna izandako eskualdea da, baina euskarak zuen tokia pixka bat galdu zuen. Bertako euskaldunei, euskaldun berriei edo euskaldun berri izan nahi dutenei zerbitzua emateko sortu zuten euskarazko irrati.

2 Zeinek sustatzen du?

Ametza kultura elkarteak, irratiarekin batera sortu zen. Aurretik *Pulunpe* hilabetekaria zegoen, 2022an 30 urte bete zituen. Aldizkariari jarraipena emateko Euskara Batzordeak irrati bat sortzeko beharra ikusi zuen. Horretarako, Ametza sortu zen eta kultur elkarteak gaur egun bultzatzen ditu *Pulunpe*, Esan Erran eta 2018an sortu zen *Amezti.eus* web orria. Beste bi hedabideen edukia webgunean dago, baita albiste laburrak, aktualitateari lotuenak.

3 Zer programazio duzue?

Orain Garazi Zabaleta Urkiola eta biok gaude Ametzarako lanean. Bi irratsaio ditugu. Astelehenetik ostegunera ordubeteko saioa egiten dugu: albisteak, elka-



Itziar Perez Argomaniz Esan Erran irrati esataria da.

rrizketa, kolaboratzaileak... Ostiralean, berriz, *EgunEro Kantuz* saioa. Herritarrak gonbidatu eta 10 kantaz osatutako zerrenda bat eskatzen diegu. Doinu horiek entzunez haien bizitzaren ibilbidea egiten dugu. Programazioa Arro-

sa Sareko beste irrati irratsaioekin osatzen dugu, horrela 24 orduko programazioa dugu.

4 Sakanan entzuten da?

FMren 107.9an emititzen dugu. Han sintonizatuta, nik

autoan Etxarriraino entzuten dut. Bestela, *amezti.eus* webgunearen bidez entzun daiteke.

5 Nola bukatu zenuen Esan Erranen?

Betidanik asko gustatu izan zait irrati. Ikasketak bukatzean bi irratiaren egon nintzen hiru urtez. Langabezian nengoela, 2018an eskaintza jaso nuen. "Hori zer da? Non dago? Hemen nahikoa albiste egonen dira?" pentsatu nuen. Jendea eta inguru oso gutxi ezagututa iritsi nintzen. Badira albisteak, jendea asko mugitzen da. Irratia geldirik zegoen, eta agur egungoa bion artean sortu dugu.

6 Nolako eskualdea da?

Ederra da. Herri txiki asko ditu. Euskarak batean eta bestean errealitate desberdinak ditu. Herritarrak mugitzen dira gauzak egin eta bertan bizi ahal izateko. Zaila da batzuetan eskualdea, komunitatea egitea, esaterako, Anueko norbaitek Imozko bat ezagutzea. Gu zubi lana egiten saiatzen gara.

7 Irratia errotuta dago inguruan?

Gelditzen denean beti dago norbait esaten dizuna irrati ez dela entzuten, atzo ez zela entzun... Norbait badago. Euskaltzaleak ere gu laguntzeko daude. Errotuta, hainbeste behar bada ez, baina presentzia bai. Faltako balitz, jendeak sumatuko luke.

8 Zer ekarpen egiten duzue?

Uste dut zerbait polita egiten dugula eta entzuten duenak eskertzen duela. Tokiko irrati ere bagara eta zerbitzu hori ere ematea: bertako albisteak, sortzen diren mugimenduen berri zabalitzen... Gure obsesioa ere bada

pixka bat komunitatea eta herria egitea, herritarrekin ere lanean aritzea. Ez gu biok aparte ibiltzea.

9 Orain urteurren ospatzera?

Bai. Joan zen urtean *Pulunpe* zahar batzuk begiratzen ari ginela ikusi genuen irratiaren lehen emisioa 1998an izan zela. "25 urte, zerbait egin beharko dugu!" esan genuen. Animatu ziren herritarrekin asanbladak egin genituen, eta ospatzeko egitarau polita dugu.

10 Zer duzue esku artean?

Larunbatean *Jazztatu*, jazz emanaldi ibiltaria. Omen kolektiboak *DarDar* proiektua aurkeztuko du. Kontserbatorioan dauden Imozko bi jazz ikasle hiru kontzertu egingen dituzte kamio txo batengainean: Larrain-tzaren 11:00etan, Zarrantzen 12:30ean eta Urritzan 13:45ean. Azken horretan Imozko eguna ospatuko dute gainera. Lastailaren 7an, 12:00etan, doako bertso saioa izanen da Odieta San-turbe ermitaren atarian: Maialen Lujanbio, Nerea Ibarzabal eta Julio Soto ariko dira. Lastailaren 21ean egun osoko urteurren festa egingen dugu Eritzeogoin.

11 Irudiekin zertan zabilzate?

Latasan Aritz Gorostiaga dokumentalista bizi da, eta haren laguntzarekin irratiari buruzko dokumental bat egiten ari gara. Irratitik pasa diren esatari guz-tiekin elkarrizketak egingo ditugu. Hasieran egon zirenek irrati nola sortu zen kontatuko dute... Irratiaren historia kontatzea da helburua. Grabazio asko egin ditugu. Falta dira batzuk. Asmoa da urteurrenaren data zehatzaren inguruan, aurkeztea.

Eman HEGALAK irudimenari





DISEINUA ETA KOMUNIKAZIOA



619 821 436
Foru plaza, 23-1. Altsasu
info@gikomunikazioa.eus
www.gikomunikazioa.eus